



Burunda kinto erritmoan

Bakaikutik Ziordira kinto ospakizunak izanen dira asteburuan / 12-14

Mankomunitateak jarduera fisikoko eskaintza herri gehiagotara zabaldu du / 5

Landa Merkataritza Dinamizatzeko Zerbitzua aholkularitza eskaintzen ari da / 9

Irati Igoa: "Osasunako lehen taldearekin debutatzerakoan poz eta ilusio handia sentitu nuen" / 17-18

Irene Beraza, Nafarroako cross country eta enducross txapelduna 125cc mailan / 18-19

Ana Goitiaren 'Katana' bakarrizketa izanen da gaur, Etxarri Aranazko Irrizikloan / 23

SINADURAK

 JOSUNE AZPIROZ IMAZ / 4	 SAKANA TRENAREN ALDE / 4
 JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON / 10	 OIHANE AGIRRE ULAIAR / 22



Ongi pasa santagedak!

Sakanaoptika
optikarretika • audiorretika • kontaktuoptika

San Juan kalea 40 (Altasu)
948 563 124 | WWW.OPTIKASAKANA.COM

"Genozidioa aspalditik dator; okupatutako herrialde bat da"

OLA ARAFAT SALAM GAZA NAFARROA

Gazatiarra jaiotzez duela hogeit hamar urte baino gehiago bizi da Nafarroan; jaioterrira "zuzeneko laguntza" bidaltzen duen elkarte sortu du

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

"Oso harrera ona izan nuen. Jendea oso adeitsua izan da, oso gertuko; familian bezala egon ginen". Ilbeltzaren 31n Ola Arafatek Salam Gaza Nafarroa elkarteke presidenteak hitzaldia eman zuen Altsasuko Iortia kultur gunean. Gazan jaioa, 2002. urtean heldu zen Nafarroara; Palestinako egoera gertutik ezagutzen du bertan familia duela. Elkarte "laguntza zuzenean" bidaltzeko sortu du.

Nolako zen Gazako egoera etorri zinenen?

Etorri ginenean Palestinako Aginte Nazionalak gobernatzen zuten; Jassir Arafatek gobernatzen zuten Palestinan eta Gazan. Mugak irekita zeuden, itsas portua genuen... Orokorrean lasai bizi ginen, Israelek zaplaztekoa ematen zuten arte. Nahi duenean bonbardeatzen zuten eta du. Dena dela, egungoarekin alderatuz, beste egoera bat zen; sartu eta ateratzen ahal ginen.

Nolakoak izan dira urte hauek?

2006an hauteskundeak egon ziren eta Hamasek irabazi zuen Gazako zerrendan, eta Munduak la-

guntzak eten zituen. Mundarendako terroristak gobernatzen ari ziren. Baina terroristak baziren, zergatik utzi zieten hauteskundeetara aurkezten? Aurkezten utziz gero, irabazten duena onartu behar da. Garai horretan mugak itxi zituzten eta laguntzak Zisjordaniara iristen ziren bakarrik. Arazoak hasi ziren: ura eta elektrizitatea moztu zuten... 2006tik jendea egunean bi edo hiru orduko elektrizitatearekin bizi zen. Esaten dute: auzo honetan 8:00etatik 11:00etara egongo da elektrizitatea. Horrela izan da ia 20 urtez. Itsas portua txikitu zuten, muga itxi zuten eta ezin zen ez sartu ez atera. Orduetik Gaza espetxe handi bat zen; urik eta elektrizitatearik gabeko espetxe bat. Zerrendan bakarrik mugitu zitekeen; sartzea arrisku handi bat zen.

Nola bizi izan duzu hemendik?

Gertutik bizi izan dugu. Garai horretan nire senarra alabarekin jaitsi zen, bere ama bihotzetik operatu behar zuten eta joan zen. Ni ez nintzen joan haurdun nengoelako eta ez zidatelako joaten utzi. Joan zen momentu

horretan dena aldatu zen eta bonbardaketak eta abar hasi ziren. Oso gaizki pasa genuen. Sartzen bazara ez ateratzera arriskatzen zara. Horregatik ni ez naiz ordutik itzuli. Itzultzeko esaten dut: Gazatik atzeratzen dena jaiotzen da; sartzen dena hil egiten da. Gogorra da, baina horrela da. Zer desberdintasun dago nire seme-alaben eta nire iloben artean? Ez dago. Baina nireek zorzea izan dute hemen bizitzeagatik eta besteak Gazan geratu dira. Oso bizitza zaila da. Gerra askotatik pasatu dira; genozidio askotatik. 2006an bat egon zen, 2012an beste bat oso gogorra izan zena, 2014an... Baina horiek desberdinak ziren gehienez 42 egun zirelako. Munduak esku hartzen zuten eta gelditzen zituen. Baina egia esan Israelek egunero erasotzen du Gaza; gauza da egunean 500 hildako ez badira, badirudiela ez zaiola inori inporta. Genozidioa aspalditik dator, betidanik; 1948tik. Palestina okupatutako herrialde bat da. Ilobak 13 urterekin bost gerra bizi izan ditu.

Ez du inoiz gaez elektrizitatearik ikusi; argizariari ohituta daude.

2023ko urriaren 7a. Nola bizi izan zenituen egun hori eta ondorengo hilabeteak?

Niretako urriaren 7a eta hamabost hilabete hauetan egon den genozidioa palestinarrak auzirako ongi etorri da. Azalduko dut: Okupatzaile israeldarrari mozorroa kentzeko balio izan du. Beti esan izan da Israelgo ejerzitoa edukatuena eta gizatiarrena zela. Diskurtso hori saltzen ari ziren, eta munduaren zati handi batek esaten zuen guztia sinisten zuen eta gezur asko justifikatzen zituzten. Baina hamabost hilabete hauetan errealitatea ezagutarazi da. Mundu osoaren aurrean eta sare sozialen bidez ospitaleak erasotu dituzte, ikastetxeak, eta biktimak haurrak eta emakumeak ziren. 1948tik esaten zituzten gezurrak azaleratu dira; haiek esaten zuten palestinarrak gine-la terroristak eta haiek biktimak. Baina horren ondoren errealitatea erakutsi dute. Niretako hori oinarritzakoa izan da. Gazan gertatu denak ere balio izan du erakusteko giza eskubideen diskurtsoa saltzen zituzten horiei. Ikusi dugu orain arte saltzen zituzten diskurtso horiek ere gezurrak zirela. Milaka errugabe hil dituzte. Orain palestinarrak auzia gobernari ahotan dago eta konponbide bat behar du. Ni zientifikoa naiz, farmazialaria, eta badakit edozein zauri ongi garbitu behar dela puntuak jarri

"2006TIK GAZA ESPETXE HANDI BAT IZAN DA, URIK ETA ELEKTRIZITATERIK GABEKOA"

"EDOZEIN ZAURI ONGI GARBITU BEHAR DA PUNTUAK JARRI AURRETIK, BESTELA ZABALDUKO DA"

aurretik. Hori da gertatzen dena Palestinan: puntuak jartzen dira baina zauria oraindik oso-oso infektatuta dago. Denbora batez ongi egongo da, baina infekzioa handitzen denean zauriak ezantada egiten du eta irekitzen da berriz ere. Orduan, nola garbi dezakegu zauri hori? Mundu osoak uste du 600 kamioi eta laguntza humanitarioa sartuko denez edo Gaza berreraikiko dutenez, arazoa konpontzen dela. Baina nire iritzia da, eta palestinarrak askok berdina uste dute, hilabete bat, urte bat, hamar urte edo dena delakoak egongo direla isilik, baina zauria infektatuko da eta zabalduko da. Zein da konponbidea? Estatu palestinarra eman behar zaie. NBEko 242. eta 383. ebazpenetan azaltzen da: palestinarrak estatu bat izan behar dute Zisjordania eta Gaza, eta Jerusalemeko ekialdea hiriburu dutela. Duela 30 urte bat inguru esan zuten, eta ez dute bete.

Aurrerapausoak ez dira ematen.

Arazo konpontzeko prest dagoen jendeari 30 urte atzera egitera eta ebazpen horiek hartzea deitzen diot. Nik uste konponbide bakarra dela. Bestela, anestesia ematea bezala da. Mina kentzen ari zara, baina une baterako bakarrik. Mina itzuliko da. Hamabost hilabete hauek ere erakutsi dute herri palestinarra oso indartsua dela; gure DNAn dago. Borrokatzen jarraituko dugu. Erakutsi dute zer den gazatiarra izatea. Munduak uste zuen gazatiarra munstro bat zela, baina erakutsi dute jatorrak eta esker onekoak direla.

Nola ikusten duzu su etena?

Su etena aringarri bat da. Hainbeste zarata eta minaren artean lasaitasun pixka bat. Gutxienez sei aste hauetan ez da hildako gehiagorik izango. Biziraun dutenek edo familiarekin gelditu direnek, behintzat badakite aste hauetan ez dutela inor gehiago galduko. Minutu batetik bestera beste senideren bat galdu zezaketela pentsatuz bizi ziren. Baina su etenak zauri asko irekiko ditu. Lehen jendea bizirautean



**TALLERES
GOÑI
TAILERRAK**



- Kristal aldaketak
- Llanta berritzeak
- Adeitasun autoa doan
- Barruko eta kanpoko garbiketara



Akaborro II industrialdea • IRURTZUN • 680 859 938 • 948 500 166 • chapigo@gmail.com



Ola Arafat, erdian, Salam Gaza Nafarroa elkartearen Altsasuko aurkezpenean bi kiderekin. UTZITAKOIA

okupatuta zegoen; pentsamendu bakarra nola biziraun zen. Orain senideak bilatzeko eta aurkitzeko momentua da. Hegoaldera joan zirenak iparraldera itzultzen ari dira, eta badakite jende asko galdu dutela, baina jakin gabe zehazki nor. Oso gogorra da. Jendeak badaki senideak eta lagunak galdu dituela. Badakite etxea bombardatu zutela, baina ez dakite bere senideak etxean zeuden edo ez. Nire koinataren kasuan, adibidez, 34 senide hondakinen azpian daude. Orain itzuli da eta bere eskuekin gurasoak atera nahi izan ditu. Baina ezinezkoa da; ez dute tresneriarik. Orduan, zure etxea izandakoaren gainean daude, jakinda senideak behean daudela. Gaixotasunak ere larritzen naute. Gorpu batzuk urte bat baino gehiago daramate hor, orain bilatzen hasi dira, gorpua hartu eta besarkatu nahi izatea... Zer bakterio egongo dira hor? Horrek ere larritzen nau. Su etena ongi dago zibil gehiago ez galtzeko, baina oso gogorra da zauri asko irekitzen direlako. Etxera itzuli dira baina bertan ez dago etxerik, ez dago urrik, ez dago ospitalerik, ez dago haimarik ere. Ez dago bizirauteko ezer. Esaldi batekin gelditzen naiz ni: Okupatzaile israeldarrak genozidio fisiko bat egin du, baina ez intelektuala.

Zer espero duzue?

Nik ez dut politikaz ulertzen. Herria Palestinarekin dago, baina gobernariak diskurtsoekin

jarraitzen dute: "Sentitzen dugu...". Nahikoa da. Nekatuta gaude. 1948tik diskurtso horrekin gaude. Orain esku hartu behar dute. Ez dakit noiz egingo duten. Orain arte 70.000 hildako dira; su etenaren aurretik 55.000 bat ziren eta hondakinen artean 70.000ko zifrara iritsi da; nik uste 100.000 iritsiko dela ere. Zer gehiago behar da? Zer gehiago ikusi behar dute esku hartzeko? Pedro Sanchezek esan zuen: "Ni Palestinako estatuarekin nago". Baina urratsa eman behar da; eragin behar da, diskurtsoak ez dira nahiko.

Salam Gaza Nafarroa elkarte aurkeztu duzu. Zer da?

Salam Gaza Nafarroa elkarte bat da. Sei emakumek osatzen dugu, eta ni presidentea naiz. Gazan gertatzen ari zen guztia ikusita, nik lehenengo pertsona bertako jendearekin hitz egiten nuenaren aurrean eta bertan dagoen behararekin, hasieran modu indibidualen laguntzen hasi nintzen. Baina iritsi zen momentu bat non ezin nuen gehiago lagundu. Orduan, bost emakume gehiagorekin batera elkarte bat egitea pentsatu genuen. Dena legalki egin dugu, eta uztailetik aurrera Gazan proiektuak egiten ari gara. Bi milioi pertsona dira, eta guztiendako ezin dugu bidali, baina erdialdean, iparraldeko eta hegoaldeko jendea batu zen zonalde batean, aterpe bat dago eta bertan ari gara. Itxaropenaren Aterpea deitzen da, Yamal aterpe arabia-

rrez, eta bertan 500 familia daude; 2800 pertsona inguru. Edateko ura banatu dugu eta labe bat egin dugu. Guretako erronka bat zen labea egitea, buztinezkoa, elektrizitatek eta gasik ez dutelako. Jainkoari esker lortu dugu. Gazako emakume boluntarioen laguntzarekin ari gara ogia egiten eta banatzen. Aterpe honetan 200 haur baino gehiago daude, eta asko umezurtz dira. Haurrendako Irribarre proiektua sortu dugu, alaitasun pixka bat emateko. Musika pixka bat jartzen dugu, pailazoak joaten dira, jokoak, sagar eta gozoki bat ematen diegu... Beldurraren artean alaitasunaren hazia landatu nahi dugu. Eguberrietan ere munduko haurrek Santa Klaus edo Olentzeroen opariak jasotzen dituzten bezala, haiei ere oparixoa eman genien. Gazako haurrek esaten dute: "Zergatik gara desberdinak gu? Zergatik gu jaikitzen gara eta gurasoak hilda ikusten ditugu opariak ikusi beharrean?". Orduan, oparixoa eman genizkien; ez ziren opariak: patata poltsa bat, sagar bat... Dagoena. Urte berriko oparia izan zen, eta eskertuta gaztelaniaz mezua bidali ziguten urte berria zorian. Herri oso eskertua da. Beste proiektu bat da Egiptora joan ziren gaztariarekin, asko ezer gabe gelditu dira muga zeharkatzeko aurreztuta zuten guztia eman zutelako, eta gaixotasun kronikoak dituzte. Botikak bidaltzea lortu dugu.



Salam Gaza Nafarroa elkartearen haurrendako proiektua, Gazan. UTZITAKOIA

Eta etorkizunean?

Proyecto 1 deitzen dena martxan jarri behar dugu. Su etenarekin laguntza humanitarioa sartuko omen denez, hori ez dute behar, eta orduan gure estrategia da haurrak ikastetxera itzultzea. Bi urte eskolara joan gabe daramatzate, eskola guztiak bombardatu dituzte, eta orduan pentsatu dugu bi edo hiru haima jarri, mahaiak, arbelak eta abar erosi, eta bertako jendearekin, %90k unibertsitate ikasketak dituztenez, klaseak eman ditzatela. Horrela haurrak nolabait psikologikoki laguntzen ditugu, baita amak ere bai. Askatasun pixka bat izango dute. Hori da gure proiektua. Salam Gaza geratzeko sortu da, eta lau edo bost urterako proiektuak ditugu. Kirol zentro bat, esaterako. Haur hauek ikusi duten biolentzia guztiarekin, biolentzian ez bihurtzeko, atera behar dute. Nola? Kirolaren bidez. Ez bakarrik kirola egiteko zentroak, elikaduran ere fokua jarriko dugu. Hezi behar zaie gauzak ezkorrak nolabait baikor bihurtzeko. Hori da gure helburu lau urtetara. Emakumeak ere biktima nagusiak izan dira. Ia 18.000 emakume alargun gelditu dira, eta bere

"SU ETENA ARINGARRI BAT IZANGO DA; BAINA ZAURIAK IREKIKO DITU ERE"

"SALAM GAZA NAFARROA BERTAN LANEAN ARI GARA, ZUZENEAN IRISTEN DA DENA"

gain haurrak dituzte. Elkartearen helburu bat tailerrak sortzea da. Dirua eman beharrean, tailerrak sortzea eta horrela lan bat egiten dute eta aurrera egiten ari direla sentitzen dute ere. Salam Gazaren indargune garrantzitsua da Gazako jendea dagoela barruan; ni farmazialaria naiz, eta horrek esan nahi du nire bertako lagun guztiak ikasketak lagunak direla: farmazialariak, medikuak... Eta GKE-tan, ospitaletan eta abar daude. Diru guztia zuzenean iristen da, ezin dugu inor engainatu. Nik beraiekin hitz egiten dut: zenbat kostatzen dute hiru haimak? Eta orduan senideei eta lagunei galdezen diet eta beraiek esaten didate prezioa ongi dagoen edo ez. Hori indargune oso handi bat da.

Nola lagun daiteke?

Elkartearen laguntzaile egiteko aukera dago, eta urtean, sei hilekoan edo hiruhilekoan norberak ahal edo nahi duen diru kantitatea eman. Bestetik, kontu korronte bat ere badugu eta bertan ere nahi duenak dirua sar dezake (ES98 3035 0203 182030020686). Gutxi bada ere guretako asko da. Bestetik, contacto@salamgaza.org epostan jar daitezke gurekin harremanetan.

Nola jaso duzu hemengo elkartasuna?

Aparta. Egia esan, asko eskertzen diot nafar herriari. Oso harro nago bertakoa ere izateaz. Nazionalitate bikoitza daukat, eta oso-oso harro nago Gazakoa eta Nafarroakoa izateaz. Hainbeste elkartasun ikusi dut; hainbeste jende ona. Hamabost hilabete hauetan herriak erakutsi du Gazaren ondoan dagoela, eta izugarri eskertzen dut. Zorionak esaten diet; alde onean egon zarete, gizadiaren aldean egon zarete.



ASTEKOA

JOSUNE AZPIROZ IMAZ

Hil arte bizi

Urte bat gure artean ez zaudenetik.

Urte bat WhatsApp berria jaso nuenetik eta lanetik noraezean korrika atera nintzenetik.

Ihauterietako astearte oraindik buruan, bat-batean erditik zatitu banindute bezala sentitu eta neure buruari ezetz, ez zela posible esaten nion.

Urte baten ondoren ere hori galdetzen jarraitzen dut. Zulo bat bihotzean, bizitzan, familian...

Ez zara galera bakarria izan, beste batzuk gainjarri ziren zurerara, familiako beste pertsona batena, Ur, gure txakurrarena baita ere. Dolu gainjarriak esaten zaie, oraindik bat landu gabe beste batean sartzen zarenean.

Dolua, horixe izanik, ukapena, amorrua, tristezia eta azkenik onarpena. Nola onartu onartezina? Nola jarraitu?

Prozesua den heinean, denbora da, egokitzapen prozesu bat. Egoera eta bizitza berrira egokitzea. Gu prozesu horretan egonda besteak ere lagun ditzakegu, entzun eta haiekin egon.

Eta haurren kasuan... beraiek ere dolua biziko dute betiere egoeratik kanpo uzten ez badira.

Ohikoa da, gainera, 3 urtetatik aurrera galderak egitea? Niri azkenaldian horrelakoak entzutea

PROZESUA DEN HEINEAN, DENBORA DA, EGOKITZAPEN PROZESU BAT

tokatzen zait. "Ama, ez naiz hilduko (hilko) ezta?" Nahiz eta galdera horren aurrean duda izan zer egin, bere adinerako azalpena eman. Ni oraindik erantzun egokiaren bila nabil...

Ipuinak beti dira horretan lagungarriak, betiere adin guztietako haurrentzat, helduak barne, noski. Beste batzuetan, egoerara egokitzeko terapia egokia izaten da, badaude profesional eta elkarteak horretan adituak.

Kantauritik harago zerbait balego besarkatuko gara berriro, denok.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXE eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak astearte 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

AHTa ez da Sakanatik pasako

SAKANA TRENAREN ALDE PLATAFORMA

Izenburuko hori, irakurle, ez da gudu oihu bat, borrokarako deialdia edota jendartea oldartzeko aldarria. Izan zitekeen arren.

Izenburuko esaldi hau hainbatetan, hainbat jenderen ahotan eta Euskal Herriko hainbat eskualdetan aditu izan dugu, zoritxarrez.

AHTaren alde eta aurka dagoen jendearekin eztabaidatzea egokitu zaigu askotan baina AHTaren aurka egonik, mobilizatzeo beharrik ez dagoela aldarrikatzen duten horien inguruan hitz egin nahi dugu gaurkoan.

Batzuen iritziz AHTa geldieztina da. Egina dago. Kittos. Interes politiko eta ekonomikoak hain dira handiak ezen ez daukagu zer eginik azpiegitura honen aurka eta beraz, gure indarrak beste gauza batzuetan metatu behar ditugu. Utzi borrokatzeari!

Beste batzuen ustez, ordea, AHTarekin jarraitzea ezinezkoa da. Ez dago egin eta ezinezkoa eginen zaie egitea. Kittos. Utzi borrokatzeari! Horien ustez AHTak ez dauka nahiko dirurik lanekin jarraitzeko, edo Europak astakeria hau noizbait geldituko du, eta larrialdi klimatikoak eta krisi ekosozialak azpiegitura suntsitzaile hau bertan behera uztera eramanen ditu.

AHT Gelditu! Elkarlanaren aspaldiko bideo batean Goierriko baserritar bat ageri da bere bailara lasaitasunaren eta isiltasunaren bailara dela aldarrikatuz eta ez duela sinisten bake hura AHTak hautsiko duenik. Tafallerriko trenaren aldeko taldearen kide batzuek ere adierazi ziguten sinesgaitza egiten zitzaiela AHTa Tafallara heltzea, noiz eta betiko trena desegiten ari ziren horretan.

Gaur egun, Goierriin, AHTaren hormigoizko egitura egina dago eta bidean

da Tafalla aldean, langileen esplotazio eta abusu larriekin gainera, berriki jakin izan dugun bezala.

Badakigu AHTa gelditzea oso zaila dela, hura egitea oso zaila den bezala. Ez dakigu etorkizunean AHTa Sakanatik pasako ote den edo ez, baina ziurtasunez badakigu gauza bat: soilik zundaketak oztopatuz, sakandarrak mobilizatuz eta herriaren hitza errespetatuz dezaten aldarrikatuz kolokan jarri dezakegula mamua.... Akaso, gelditzeraino!




OBJEKTIBOTIK



Itsasi Euskaltegia
@ItsasiEuskaltegia

Ikasgela beste batzuekin elkarbanatzen dugunean...



www.guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Maketatzailea:
lune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administratzailea:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Maite Iparragirre Astiz

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
erredakzioa@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maidier Betelu Ganboa
kiriolak@guaixe.eus
eta Erikuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Irratia:
Eneida Carreño Mundiñano
irratia@guaixe.eus
948 567 074

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus
661 523 245
Itziar Gastearna Colmenero
publizitatea@guaixe.eus
619 821 436

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

guaixe
kide



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Jarduera fisikoko eskaintza zabaldu dute

Sakanako Mankomunitatearen Jarduera Fisikoaren Orientazio Zerbitzua beste hiru herritan eskaintzen hasi dira: Lizarraga, Iturmendi, eta Olatzagutia. Gainera, Uharte Arakilgo taldea sendotu da

SAKANA

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak Jarduera Fisikoaren Orientazio Zerbitzua eskaintzen du. Haren bidez, sedentarioak diren sakandarrak, gaitz kronikoak dituztenak eta baztertzeko arriskuan dauden pertsonak aktiboagoak bihurtu nahi dituzte. Izan ere, "sedentarismo tasa oso altua dago". Eta, gainera, "obesitatea gero eta ohikoagoa da. Eta hori biztanleria ez aktibo baten ondorioa baino ez da. Jarduera fisikoa egiteak bizi kalitatean eta menpekotasun atzerapenean onura positiboak ditu". Hala ziurtatu dute Amaia Gerrikagoitia Uriartek, Mank-eko jarduera fisikoko teknikariak.

Gerrikagoitiak azaldu duenez, "ahalik eta sakandar gehienengana iristeko helburua dugu. Herri handietan bada dagoeneko eskaintza eta orain Sakanako herri guztietara zabaldu nahi dugu". Ahalegin horren emaitza da Kirol Zerbitzuak Jarduera Fisikoaren Orientazio Zerbitzua eskaintza Lizarraga, Iturmendi eta Olatzagutira iritsi dela, eta Uharte Arakilgo taldea sendotu dela. "Ziordian taldea sortzeko ahalegina egiten ari gara. etengabeko egokitzapenean ari gara", gaineratu du Gerrikagoitiak.

Teknikariak azaldu duenez, "hiru herrietan erantzun ona izan du eskaintzak. Jubilatutako elkarteekin elkartu ginen zerbitzuaren berri emateko. Eta, Iturmendin, esaterako, dozena bat gizon-emakume parte hartzeko gogoia azaldu zuten".

Eskaintza

Jarduera Fisikoaren Orientazio Zerbitzuak bost eskaintza barnebiltzen ditu. Alde batetik, kontsultak daude. Elkarrizketa bat da, eta han pertsonaren azterketa fisikoa egiten da. Emaitzaren arabera, pertsona jarduera fisiko antolatu batera bidera-



Irurtzundarrak Plazaolako bide berdean paseatzen. ARTXIBOA

"BAKARREN BATEK NAHI BADU, BERE MEDIKUARI KIROL ERREZETAZ GALDETU BEHAR DIO"

tzen da, edo berarendako propio prestatutako jarduera fisikoa eskaintzen zaio. Bigarrena eskaintza jarduera fisikoko saioak dira, Daniel Echavarri Manjon kirol orientatzaileak gidatzen dituenak. Hirugarren eskaintza *Etxean Bizi* da. Izenak dioen bezala, etxean dauden eta mendekotasuna duten pertsonen zuzendutako eskaintza da. Ariketa fisikoa egiten erakusten zaie eta, horren ondoren, kirol orientatzailearen bisita jasotzen du hilean behin edo bitan. Laugarren eskaintza hausturekin du zerikusia. Zehazki hausturak ekiditeko eskaintza da. 80 urtetik gorako pertsonen hezurak ahulagoak dira. Horren jakitun, kirol orientatzailearekin ariketa fisikoa, oreka, koordinazioa eta indarra lantzeko saioak egiten dira osasun etxeetan, eta talde txikitik. Jarduera Fisikoa-

ren Orientazio Zerbitzua azken eskaintza Ttipi Ttapa da. Talde txikitik, paseo bat ematen da eta ibili bitartean indarra lantzeko ariketak egiten dira.

Gerrikagoitiak azaldu duenez, zerbitzua gaur egun hamaika herrietan dago. Kontsultak Irurtzun, Etxarri Aranatz, Altsasu eta Olatzagutian pasatzen dira. Jarduera fisikoko saioak Arrua, Lakuntza, Arbizu, Lizarraga, Etxarri Aranatz, Iturmendi eta Olatzagutian daude. Haietako batzuk gidatuak dira. Ttipi Ttapa saioak Irurtzun, Uharte Arakil eta Urdiainen egiten dira. Eta hausturak saihesteko saioak, berriz, Irurtzun eta Etxarri Aranatz.

Mank-eko jarduera fisikoko teknikariak azaldu duenez, "guztira 120 erabiltzaile ditu, baina kopurua egunero eguneratzen da". Azaldu duenez, erabiltzaile horietako asko kontsultatik pasa ondoren hasi dira ariketa fisikoa egiten, "joan zen urtean 70 kontsulta egin ziren", zehaztu du. "Bakarren batek Jarduera Fisikoaren Orientazio Zerbitzuari buruzko informazioa nahi badu, bere medikuari kirol errezetaz galdetu behar dio".

Ataun Bernoako galtzada azaleratzen hasi da

Auzolandegi baten bidez egin dute hasiera. Intxusbururaino azaleratu nahi dute

SAKANA

Bernoako galtzada GR 323 ibilbide luzea 2021eko udaz geroztik erabilgarri dago. Mendiaren beste aldean du segida Bernoako galtzadak, Ataunen. Eta bertako udala galtzada berreskuratzeko pausoak ematen hasi da. Udan antolatutako auzolandegian 53 metro azaleratu zituzten. Martin Aramendia Arana alkateak azaldu duenez, "auzolandegia antolatu genuen iaz nolabait galtzada berreskuratzen hasteko. Kontua da auzolandegiaren bidez dena egiteko urte asko eta asko behar-

ko genituzkeela, eta beste bide batzuk jorratzen hasi gara". Horietako bat da "Gipuzkoako Foru Aldundiaren natur ondarea berreskuratzeko dirulaguntza lerro bat, eta une honetan hori argitaratu zain gaude". Aramendiak gaineratu duenez, "dirulaguntza eskatzeko aurrez beharrezkoa da topografia azterketa egitea, eta aurrekontuak eskatzen ari gara azterketa hori martxan jarri ahal izateko". Alkateak zehaztu duenez, haien nahia da galtzada Intxusbururaino berreskuratzea heldu den urteetan.



OTSAILAK 10-14

10:00 Agurra, eguraldia, edukiak aurkeztu eta eguneko kanta

10:15 Prentsaren azalak

10:20 Albisteak eta kirolak

10:30 Hizketan

11:05 Solasaldia Karrape eta Aralar irratiekin

14:00 Errepikapena

Hizketan

Otsailak 10 Anne Azkona nutrizionista eta CIP FP Sakana LF IIPkoen Podcastak

Otsailak 11 Irene Beraza motoziklista

Otsailak 12 Bertso saioa (Bertsoa.eus)

Otsailak 13 Irati Igoa futbolaria

Otsailak 14 Agenda berezia

"Patronalari betearazi diezaiotela araudia"

INKO IRIARTE SAN VICENTE LABEKO LAN OSASUNEN ARDURADUNA LAB, ESK, STEILAS, Hiru, Etxalde eta CGT sindikatuek deituta, kontzentrazioa egin zen, Arbizun izandako lan istripuan 52 urteko altsasuarra hil zela salatze

SAKANA

Nafarroan, dagoeneko, hiru langile hil dira lan istripuan urte hasieraz geroztik. Ilbeltzaren 30ean ezbeharrak Altsasu kolpatu zuen. Sindikatu guztiek senide eta gertukoiei atsekabea adierazi zieten, eta halakorik berriro ez gertatzeko neurriak eskatu zituzten. Altsasun egin dako bilkura bidez salatu zuten sei sindikatuk lan heriotza.

Zoritxarrez beste bilkura bat egin beharra.

Eta, tamalez, ohituta gaude egoera hauetara. Urtetik urtera salatzen gatoz urtero ezbeharren tasa izugarria dela. Joan zen urtean Nafarroan 26 hildako izan genituen, soilik istripuetan. Dagoeneko datua argitaratu dute: 24.000 istripu traumatiko pairatu genituen nafar langileok 2024an. Horietatik erdiak, egun bat baino gehiagoko bajak eragin zituzten. Esan behar da urtez urte errepikatzen direla zifra horiek. Eta sinestarazi



Altsasun egin zen bilkura. Inko Iriarte San Vicente, ezkerretik lehena.

nahi digute horien guztien atzean kasualitatea dagoela, baina inolaz ere ezin dugu onartu. Istripu horien guztien atzean kausak daude.

Zein dira aipatzen dituzun kausa edo arrazoi horiek?

Bi arrazoi nagusi daude. Prekarietatea batetik. Lana gero eta gogorragoa, okerrago ordaindua dagoela eta segurtasun bermeak ez zirela eskaintzen. Gainera, salatu behar dugu patronalaren zigorgabetasuna. Europako Lan

Osasunerako Araudiak 30 urte ditu eta, modu orokortuan, ez da betetzen. Ez da betetzen eta hori langileok gure osasunarekin ordaintzen dugu.

Zergatik ez da Europako legedia betetzen?

Hori ulertu behar da, horren atzean erabaki politiko bat dagoela. Erabaki politiko hori da patronala bera babestea. Nahiz eta Europar Prebentzio Legea egon 1997tik, ez dira bitartekoak ipintzen hori betearazteko. Estatuan enpresek lege hori betearazteko erreminta Lan Ikuskaritza litzateke. Datuak, ulertzeko: Nafarroak soilik hamar lan ikuskari dauzka. Ederki ulertu dezakegu hamar lagunek ezin dutela Nafarroa guztia kontrolatu, enpresariak legedia bete dezaten. Eta mezu hori oso ongi ulertzen du patronalak: "guk ez daukagu zertan bete beharrik, oso zaila izango da isunak pairatzea". Eta hori egin dute, ez bete eta langileek ordaintzen dugu gure osasunarekin.

Horri buelta emateko, zer aldarrikatzen duzue?

Behingoatik administrazioak patronalari betearazi diezaiola araudia. 30 urte luze horietan patronalak erakutsi digu behar ez bazaie ez dutela beteko. Beraz, zigortzeko moduko bitartekoak behar ditugu, isunak jartzeko modukoak, patronalari betearazteko. Inspektore gehiago eta kanpaina zorrotzak.

Hiru itzulpen 'Regreso a Etxarri Aranatz' liburuari

Euskaraz, frantsesez eta ingelesez eman dute. Ulaiar familiak bizitakoan oinarrituta dago liburua

ETXARRI ARANATZ

Tomas Caballero fundazioak eta Victimás del Terrorismo elkartek argitaratuta, Javier Marrodan Ciordiak *Regreso a Etxarri Aranatz* 2004ko azaroaren 23an aurkeztu zuen. ETak Jesus Ulaiar Liziaga alkate ohia 1979ko ilbeltzaren 27an hil zuen. Hilketaren 25. urteurrenaren harira, Etxarri Aranatz bi mila pertsona elkartu zituen ekitaldi bat egin zen 2004ko ilbeltzaren 24an. Egileak bitarte horretan Ulaiar familiak bizi izandakoa jaso zuen.

Fundazioak liburua, atzera ere, argitaratu du. Oraingoan euskaraz, frantsesez eta ingelesez, Ariz Gorrotxategik, Severine Vigneronnek eta Claire Thompsonnek itzulita. Aurkezpenean Iruñean egin zuten ilbeltzaren 31n. Egileak ezin izan zuen ekitaldian presente egon, baina ohar bidez adierazi zuenez, "Ulaiar familiarren kasua ikono bat izan da, eta da. Bere bizi gorabehere osagai guztiak dituzte: mina, iraina, bost hamarkadatan luzatu zen ETaren jardueraren aurreko bakardadea eta inpotentzia".

Liburuak fundazioaren webgunearen bidez dohainik deskarga daitezke, edo paperezko bertsioa eskatzeko. Fundazioko presidente Tomas Caballero Martinezek esan zuenez, "euskarazko azalpenaren lehentasuna da beste hizkuntza batean irakurri ez zutenengana lekukotza eramatea. Liburua euskaraz ere egia eta askatasun mezua da". Frantsesezko itzulpenarekin "biktimen egia pertsona gehiagorengana iristeko egin dugu, historia zen bezala kontatzen, manipulazioa eta ahanzturarik gabe". Ingelesa "berez, nazioarteko hizkuntza da, eta historia hori maila globalean zabaltzea ahalbidetzen digu. Herrialde askotan Espainiako terrorismoaren errealitatea ez da ezagutzen, edo desitxuratu egin da".

Euskararen alde, zubietan elkartzera deitu du Sorionekuk

Herrietako zubietan maiatzaren 10ean da hitzordua, "etorkizunerako gure konpromisoa erakusteko"

SAKANA

Sorionekuk dinamika nafarrak bere herrietako zubietan bat egitera deitu ditu. "Elkarrekin etorkizunera bidea urratzeko beharrezko tresna gisa" aurkeztu dituzte zubiak, "ulerkerara zubiak. Ezagutzara. Euskarara zubiak. Eta, batez ere, euskaratik zubiak". Zubi horiek "guztiok, elkarrekin, inor atzean utzi gabe" eraiki nahi dituztela adierazi dute Sorionekuko kideak. "Etorkizuneari Nafarroa izaten jarraitzeko, beharrezkoa duelako eta dugulako euskara. Euskararik

gabe ez baitago Nafarroarik. Euskara delako nafar, euskaldun, herritar egiten gaituena. Guztiok, ezagutu edo ez, gure hizkuntza maitatu edo ez".

Ziurtatu dutenez, "herritar guztiak igualak gara. Horregatik, arduraz aritzea exijitzeko garaia dela uste dugu, ez bazterketa betikotzekoa. Aldaketarako unea da, eta guztion hautua beharko luke hizkuntza etorkizuneko ulerkerarako zubi eta oinarri bihurtzea. Bada garaia euskarari dagokion tratamendua, lekua, emateko". Esan dutenez, "gure



Deitzaileen artean Maialen Huarte Arano eta Anabel Arraiza Artieda daude. UTZITAKOIA

hizkuntza, nafar guztion hizkuntza dena, bultzatu eta harekiko harremana normalizatzea da etorkizuneko nafar jendartearen zutabeetako bat. Euskararekiko gorrotoa indargabetu beharra dago. Eta indargabetze hori gure

hizkuntzari beldurrik ez izatean eta hura ezagutzean gauzatuko dela sinetsita gaude. Ezagutzean eta hurbiltzean". Horregatik, "gure uste irmoa da euskara zuen arteko zubi ere bihurtu behar duzuela".



ARTXIBOA

Ihabarren ur ihesak begiz jota

Nafarroako Gobernuak Toki Azpiegituren Planeko dirulaguntza deialdia eginen du aurtan. Ihabarko Kontzejuaren nahia litzateke ur sarean dauden ihesak konpontzea, eta, bide batez, kaleetako zorua. Horretarako, eskaera aurkezteko asmoa dutela aurreratu du Samuel Arraras Irañeta kontzeju buruak.

Larrazak ardura berria mustu du unibertsitatean

Nafarroako Unibertsitate Publiko (NUP) errektore Ramon Gonzalo Garciak lau errektoreordetzaren buruak berritu ditu. Unibertsitateko zuzendaritza taldean jarraitzen du Martin Larraza Kintanak. NUPeko Kalitateko, Ekonomiako eta Estrategiako errektoreordea izan da 2019az geroztik. Eta astelehenaz geroztik Ikerketako errektoreordea da. Enpresen Antolaketako katedraduna da Larraza NUPen eta INARBEko ikertzailea. Enpresen Administrazioan eta Zuzendaritzan lizentziaduna eta Enpresa Zientzietan diplomaduna da, biak NUPen, eta Ekonomian doktorea Madrilgo Carlos III Unibertsitatean.

Arbizuko Udalak lan istripuak desagertzea eskatu du

Herrian langile baten heriotza eragin zuen istripua dela eta, Arbizuko Udalak "lan istripuak behin betiko desagerrarazteko hartu beharreko neurriak har" daitezela eskatu du. Aldi berean, gertatutakoa argitzeko eskatu du. Arbizuko Udalak "behar-beharrezko" jo du "egungo lan osasun eta segurtasunean aurrerapauso nabarmenak ematea, baita Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Araudia zehatz-mehatz eta irmoki betearaztea". Arbizuko Udalak dei egin die administrazioari, sindikatuei eta patronalari elkarrekin "lan arriskuen prebentzioaren aldeko praktika onen jarrera izan eta bultzatuz".

Santioaldeko urbanizazio proiektua onartuta

Bi fase izanen ditu. Aurrena, handiena, eraikuntza enpresa batek eginen luke. Atzena, txikiena, udalaren esku geldituko litzateke. Kale berriak Elizazpi eta Bideberrialde kaleak batuko ditu etorkizunean

BAKAIKU

Santiago ermitaren eta frontoia- ren artean dagoen lursaila urbanizatzeko proiektua behin betiko onartu du Bakaikuko Udalak. Egitasmoa Construcciones Bakaikoa SMK sustatu du. Garatuko litzatekeen urbanizazioak 5.500 metro karratu inguru lituzke. Lehen fasean 1.613 m²-ko azalera duen kale bat eraikiko litzateke. Kale hori Elizazpi kaltetik Santiago ermitara joateko bidea moldatuta eginen da. Ermita pasata, Iturralde frontoirantz joko du, Bideberrialde kalearekin lotzeko. Urbanizazio proiektuaren arabera, kale berri horren bi aldeetara seina etxebizitza eginen dira.

Bakaikuko alkate Egoitz Urri- tza Lazkozek azaldu duenez, "ermita ondotik pasatzen den erreka gaineko zubia dezente zabaldu beharko litzateke". Urri- tzak gaineratu duenez, "autobia ondoan dauden larre batzuetara joateko bidea ermitatik abiatzen da. Gutxi erabiltzen da, baina urbanizazioak bidea ez mozteko eta sartzeko erraztasuna izateko, udalak enpresarekin hitzarmen bat sinatu du". Horren arabera, ermitara paralelo eginen den errepidea pixka bat luzatuko du udalak, bideari segida emateko. Urbanizazio lan hori bigarren



Ezkerrean urbanizazio proiektua hartuko duen eremua.

fasea litzateke eta 250 metro karratu hartuko lituzke. Urri- tzak argitu duenez, "enpresak proiektua etorkizunean garatzeko egin du. Eraikitzen hasteko azkenau- rreko pausoa da urbanizazio proiektua onartzea. Horretarako obra lizentzia eskatu behar- ko luke".

Etxebizitza eta egitasmoak

Bakaikuko Estrategia Plana egi- terakoan etxebizitza izan zen bakaikuarrek azalera- tutako gaietako bat. Planak bost urte bete zituelako parte hartze pro-

zesua egin zuen udalak joan zen urtean. Eta horretan, atzera ere, etxebizitzarekiko kezka agertu zuten herritarrek. Despopula- zioarekin batera nabarmendu ziren gaiak dira, alkateak azaldu duenez. Etxebizitzarekin zer egin aztertzen ari dira udalean gaur egun. Bestalde, Bakaikuko, Itur- mendiko eta Urdiango udalek Iturmendiko mediku kontsulta- tegi gainean etxebizitza bat dute. Harekin zer egin erabakitze- ko dute jabeak diren hiru udalak, baina oraindik etxebizitzarekin zer egin ez dute zehaztu.



BISITA PERTSONALIZATUAK
Ikastordutan edo ikastordutatik kanpo.
Hartu hitzordua.

948 56 29 51

606 03 09 66

www.inigoaritzza.eus

ATE IREKIAK (TXIOKAN)

Otsailak 21. 17:00etan.

Otsailak 22. 11:00etan.

ZATUZ
GUREKIN!!!



Izan giltzarri!



Altsasu kantuz

Izan giltzarri!



[guaixe.eus/
kideak](https://guaixe.eus/kideak)

Elkartasun azokarako bilketari ekingo diote

Berrerabil daitekeen edozein objektu jasoko dute Sakana Harrera Haranako kideek

ALTSASU

Erkuden kaleko 8. zenbakiko udalaren lokala, garai bateko Sociedad Deportiva taberna zena, gaurtik aurrera ostiralero zabalik izanen da 11:00etatik 13:00etara. Tarte horretan Sakana Harrera Haranako kideak bertan izanen dira. Izan ere, apirilaren 6rako elkartasun azoka antolatuta dute. Han salgai jarriko dituztenak jasotzeko zabalduko dute lokala ostiralero. Sakana Harrera Haranako kideek azaldu dutenez, "jendeak etxean dituen, erabiltzen ez eta egoera onean dauden arropak, jostailuak, bitxiak, oinetakoak, maindireak, ontziak eta abar ekar ditzakezue". Martxoaren 28ra arte ariko dira ostiralero materiala jasotzen. Bilketa horretan ere Altsasu Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutuak lagunduko du. Azoka eguna gerturatzean hasiko dute objektuen bilketa eta sailkapena ikastetxean.

Jasotako guztia sailkatu eta Altsasuko estalpean egingen den elkartasun azokan salgai jarriko dute apirilaren 6an. Elkartasun azokarekin, Sakana Harrera Haranak, batetik, jasotako objektuei bigarren bizitza bat eman nahi die. Aldi berean, ekonomia egoera zailan daudenei erraztasuna eskaini modu onean erosteko egoera onean dauden gauzak. Lortutako dirua inklusioaren eta gizarte berdintasunaren alde lan egiten duen Elkarri Laguntza gobernuz kanpoko erakundearendako izanen da.

Sakanako Mankomunitateko Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuak ere laguntzen du ekimena. Bakarren batek ostiraletan materiala eraman ezin badu, harekin harremanetan jarri eta nola eman zehaztu dezake. Horretarako, 648 070 710 telefonora hots egin edo anitzartean@sakana-mank.euse-posta helbidera idatzi behar da.



Maria Eugenia Rosa Cantero Maru fruta dendan.

Landa merkataritza dinamizatzeko zerbitzua

Cederna Garalurrek kudeatzen du. Herrietako merkatariei doako aholkularitza ematen die, beraien lehiakortasuna hobetu dezaten. Zerbitzuko teknikariek merkatariekin eskuz esku lan egiten dute herriei bizia ematen dieten negozioak bizirik mantentzeko

SAKANA / ALTSASU

Nafarroako Landa Merkataritza Dinamizatzeko Sareak bere zerbitzua Sakanan Cederna Garalurrek kudeatzen du. Mendiak daude eta Sakanako dendariekin eskuz esku lanean Andoni Martin Torrecillas merkataritza teknikaria ari da. Landa Merkataritza Dinamizatzeko Zerbitzuak lau egiteko ditu. Alde batetik, saltokiei laguntzea eratzeko unean eta hasierako jardura urteetan. Bestetik, establezimenduei orientazioa eta aholkularitza pertsonalizatua ematen die digitalizazioari, jasangarritasunari eta beste gai batzuei buruz, edo Administrazioarekin izapideak egiteko. Zerbitzuaren egitekoa da ere asoziazionismoa sustatzea. Eta, azkenik, saltoki, elkarte, udal eta beste eragile interesgarri batzuen arteko komunikazioa erraztea du egitekoa zerbitzuak. Nafarroako Gobernuaren %79ko finantziazioa du.

Adibidea

Altsasuko Maria Eugenia Rosa Canterok Maru izeneko fruta denda zabaldu zuen 2021eko azaroaren 9an. Bere establezimenduan, fruta eta barazkiez aparte, Extremadurako produktuak saltzen ditu. Maruk Nafarroako Landa Merkataritza Dinamizatzeko Zerbitzuaren aholkularitza espezializatua eta indibidualizatua izan zuen. Maruk Martinekin batera lan egin zuen, eta bere fruta dendako funtsezko alderdiak aztertu zituen, esate baterako altzarien antolamendua, ordena, garbitasuna, seinaleztapena edo kontsumo ohiturak. "Banekien zerbait aldatu behar zela dendan, baina ez nekien nondik hasi. Andonik nire ideiak antolatzen eta nire bezeroei zerbitzu hobea eskaintzeko nola hobetu nezakeen ikusten lagundu zidan", esan du Maruk.

Bere establezimendua eraldatzea erabaki zuen abenduan, salmentarako espazio fisikoa optimizatuz eta bere irudia mo-

dernizatuz bezeroen behar berrietara egokitzeko. Kolore korporatiboak denda osoan homogeneizatzea lortu zuen, bezeroei espazio atsegina eta argitsu bat eskainiz, non eskaintzen dituen produktuak ordenatuta dauden eta seinalea berriarekin primeran identifikatzen diren. Erosketak egiteko tresnak eskuragarriago egiten ditu, hala, bezeroei eskura duten informazioarekin. Ahalegin hori ez da gai estetikoak bakarrik; negozioaren bizi iraupenaren aldeko apustua da, eta, "horrekin batera, ibarreko bizimoduaren aldeko apustua da", zehaztu du Martinek.

Martinekin batera Marurena "hurbileko merkataritzaren berrikuntzaren adibidea da. Tokiko

"SALTOKI BAKOITZAREN ATZEAN PERTSONA BAT DAGO BERE JENDEAREN ALDE, JENDEARENDAKO LANEAN ARI DENA"

merkataritzak ez ditu produktuak bakarrik eskaintzen; benetakotasuna, ingurunearen ezagutza eta komunitatearekiko konpromisoa lortzen du, plataforma handiek berdindu ezin dutena". Maruk esan duenez, "herri gisa garenaren esentzia" eskaintzen dute herrietako dendek. Teknikariak azaldu duenez, "hurbileko eta tokiko merkataritzak une kritikoa bizi du. Kontsumo modu berrien agerpenak, plataforma digital handien kasuan, gogor kolpatzen ditu negozio txikiak, batez ere landa eremuetan". Hala ere, "Maruren bezalako adibideek erakusten dute erresistentzia eta berritzea posible direla, nahiz eta eguneroko ahalegin etengabea eskatzen duten".

Erronkak eta komunitatearen garrantzia

Martinek azaldu duenez, "Maru bezalako merkatarien egunerokotasuna erronkaz beteta dago. Tokiko negozio bat mantentzeko berekin dakar kate handien lehia aurre egitea, gero eta aukera gehiago dituen bezeroak fidelizatzeko borrokatzea eta bezero gero eta modernoagoen itxaropenetara egokitzea. Gainera, saltokien mantentze eta eguneratze kostuek, landa eremuetako kontsumoa gutxitzearekin batera, erresistentzia ariketa bihurtzen dute lanaldi bakoitza". Maruk azaldu duenez, "jendeak ez du beti ikusten zer dagoen horrelako negozio baten atzean. Ez dugu pertsiana bakarrik irekitzen; egunero lan egiten dugu kalitatea, gertuko tratua eta beste leku batzuetan aurkitzen ez den zerbitzua eskaintzeko".

Teknikariaren iritziz, "Maruren eta bere fruta dendaren kasuak agerian uzten du tokiko merkataritzaren biziraupena ez dagoela merkatarien esku bakarrik. Herriarren esku ere badago, eguneroko kontsumo erabakien eta ingurunearekiko konpromisoaren esku". Maruk gaineratu duenez, "gure herrien etorkizuna jokoan dago. Hemen erosteak zerbitzuak, negozioak eta, azken finean, gure ibarretako bizimodu bizirik mantentzea esan nahi du". Martinen arabera, "Maruk apaletan jartzen duen fruta bakoitzak gogorarazten du saltoki bakoitzaren atzean pertsona bat dagoela bere jendearen alde eta jendearendako lanean. Eta lan hori guztiek aitortu, babestu eta baloratzea merezi du".



KOLABORAZIOA

JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON

Sakanako lexia konposatuak (XI)

Estomagoa bizkarrean eduki Etxarri Aranatzen behintzat erabilia izan da aditz perifrasi hau. Oso argala egon, diafragmaren inguruan zuloa izan. Estomagoa bizkarrezurraren kontra itsatsirik. Horrela erabili zion Leti etxarriarrak bere gaztaroko apez bati urte askotara hura ikusterakoan: *Egun on, Don Pedro! Beti bezela ikusten zeittut, estemaube bizkerrien dakazula!* (Egun on, Don Pedro! Beti bezela ikusten zaitut, estomagoa bizkarrean daukazula!). *Eztiek ez, estemaube bizkerrien dakabiela, Iruña-Veleiako ostrakak azturtu nei ez ttubien ganbelekuek!* (Ez zaudek, ez, estomagoa bizkarrean daukatela, **Iruña-Veleiako** ostrakak azturtu nahi ez dituzten ganbelekoak!). Gaztelaniaz, "estar esquelético" adieraziko litzateke.

Estu eta larri, Larri eta estu Erabilera orokorrekoak ditugu esapide hauek. Estu eta larri ibili. Etxarri Aranatzen, esate baterako, zabalduago dago ordena aldaturik izenondoak: *larritestu. Larritestu ibillen dek ori soldaduskaa otseitten doobienien.* (Larri eta estu ibiliko duk hori soldaduzkara hots egiten diotenean). *Larritestu pasatuko zittubabien Eliseo Gillek eta Idoia Fillolek azken emezortzi urtiok, ganbelekuek Iruña-Veleiako indusketa lanak jendu*

zuzkiyobieneti. (Larri eta estu pasatuko zitiztean Eliseo Gil-ek eta Idoia Fillol-ek azken hemezortzi urte hauek, ganbelekoek **Iruña-Veleiako** indusketa lanak kendu zizkienetik). Gaztelaniaz "estar apurado".

Etro (ari) izan Aranatzan, Arakilen eta Larraunen izan da erabilia aditz perifrasi hau. Gehiegikerietan erortzen den persona izan. Gehienbat janari-edariekin erabiltzen da Sakana erdialdean. Larraunen, ikusiko dugun moduan, OEHren arabera, erruz, ugari, gehiegi adieraziko luke ere bai, baina adibidea euriari egokitua da. *Bei etrue dala zuen seme gazteena, ez tek sekule asetzen!* (Bai etroa dela zuen seme gazteena, ez duk sekula asebetetzen!) *Etro ari du!* 'Ilueve torrencialmente' (Larraun). *Ganbelekuek etro ai ttun Iruña-Veleiako aztarna guziek arrapatzen, estali eta iyorezek ez aztertzeko!* (Ganbelekoak etro ari ditun **Iruña-Veleiako** aztarna guztiak harrapatzen, estali eta inork ere ez aztertzeko!) Gaztelaniaz, "hacer excesos, acaparar".

Eultzia egin Sakanan, Zaraitzun eta Erronkarin gutxienez erabilia. Laboreak aletu. Garai batean larrainean egiten zen eultzia. *Emen gariyek, oluek, zikiyuek eta geñakuek biandu ontzen dienes, auntsiye garillan akaberan*



Ganbeleko zenbait, ganbela betetzeko zain. JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON

eitten diau! (Hemen gariak, oloak, zikirioak eta gainerakoak berandu ontzen direnez, eultzia garilaren akaberan egiten dugu!) *Ganbelekuek gustua asko jarriko zittubabien larreñek Iruña-Veleiako aztarnategiyen, auntsiye eitteko aitzekis, ostrakak eta geñakuek estaliik gelditzeko.* (Ganbelekoek gustura asko jarriko zizkiaten larrainak **Iruña-Veleiako** aztarnategian, eultzia egiteko aitzakiarekin, ostrakak eta gainerakoak estalirik gelditzeko). "Realizar las labores de la trilla", gaztelaniaz.

Ezin burutuz egon / ibili Aranazko herrietan izan da erabilia gehienbat. Zerbaitekin edo norbaitekin gauza onik egin ezinik egon. Saiatu eta saiatura-gatik, helburua lortzen ez denean erabiltzen da bereziki perifrasi hau. *Semieki ezin buutus dailtze.* (Semearekin ezin burutuz dabilta). *Ondeamakinak eta geñakuek ibilliye gatis, ganbelekuek ezin buutus dailtze Iruña-Veleia estaltzeko asmueki.* (Hondeamakinak eta

gainerakoak erabiliagatik, ganbelekoak ezin burutuz dabilta **Iruña-Veleiako** euskal aztarnak estaltzeko asmoarekin). "No hacer carrera", gaztelaniaz

Frantses-musu Ergoienako Lizarragan erabiltzen omen zen. Bestearen masailak eskuetan harturik ezpainetan ematen zaion musua. Samurtasun handia adierazten duen musua. Ondorengo esaldia etxarrieran, Lizarragako hiztegiak 'frantses musu' gaztelaniaz nola azaltzen duen adierazita: *Ikusi auben atzoko pelikulen, geldi-geldi aurpeye esku artien artuta, goxo-goxo, ezpeñek luzetuta, nolako franzas-musube eman zioan?* (Ikusi huen atzoko pelikulan, geldi-geldi aurpegia esku artean hartuta, goxo-goxo, ezpainak luzatuta, nolako frantses-musua eman zioan?). *Gustua emanen genozkiyoban franzas-musu betzuk, Iruña-Veleiako ostrakak laboratoyua bielduko lauzken yozin agintayai.* (Gustura emanen genizkioan frantses-musu batzuk, **Iruña-Veleiako** ostrakak laborategira bidaliko lituzken edozein agintariri)

Frantses-ontto Sakana gehienez erabiltzen zen. Jaten ez den «boletus» saileko onddoa. Horieta askori, jateko onak izanagatik, ohitura dela eta, horrela esaten zaie. *Boletus aereus, edulis, pinicola, estivalis, regius...* ez beste «boletus» ia guztiak. *Atsalde guzien basuen gora ta bera ibilliyaatis, franzas-onttuek besteik ez zittubet ikusi.* (Arratsalde guztian basoan gora eta behera ibiliagatik, frantses-onddoak besterik ez ditiak ikusi). *Iruña-Veleiako ganbelekuek, franzas-onttuek beño askos kaltegarriyoo ttun!* (**Iruña-Veleiako** ganbelekoak,

frantses-onttoak baino askoz ere kaltegarriagoak dira). "Hongo que a pesar de no ser venenoso, no se come"

Faltsiari eman, Kolpe zorririk ez jo/eman Sakana osoko euskal hizkeretan da erabilia. Alferkerian erori. Lanik egin gabe, probetxuzko ezer ere egin gabe, bizi. Kasu honetan «faltsia», «faltsukeria» edo «alferkeria» adierazteko baliatzen da. Lehena Sakanan entzun daiteke eta bigarrena, aldiz, orokorragoa da. *Asi berko geittuk zerbait eitten, faltsiyai emanik gaudek ta azken aldiyontan!* (Hasi beharko gaituk zerbait egiten, faltsiari emanik gaudek eta azken aldi honetan!) *Ez tikiyet nola demontre bizi dien, golpe zorririk ez peitebie eman azken bost urtetan!* (Ez zakiat nola bizi diren, kolpe zorririk ez baitute eman azken bost urteetan!). *Emezortzin bet urte eskuten dakabiela Iruña-Veleiako aztarnategiye ganbelekuek eta faltsiyai emanik ziek nunbeitt, indusketa bakarrak ondeamakiñaaki ein beizittubiek.* *Ostrakak aztertzen golpe zorririk eye eman!* (Hemezortziren bat urte eskuetan daukatela **Iruña-Veleiako** aztarnategia eta faltsiari emanik zaudek nonbait, indusketa bakarrak hondeamakinarekin egin baititiztek. Ostrakak aztertzen kolpe zorririk ez ditek eman!). "Darse a la vagancia"

***Ganbeleko, -ue/-ua** izond. Erabilera orokorrekoa izateko sortua, zoritxarrez. Nagusiaren gogoak eta eskakizunak, edozein direla ere horiek eta diruaren truke, asetzeko prest dagoena. Artzainak ganadurekin egiten duenaren simila izanzen genuke. Gaztelaniaz "pesebrero, el que se alimenta del pesebre" litzateke.

DUELA 25 URTE...



Kinto olaztiarrak

Urteko kinta 25 olaztiarrek osatu zuten, 13 mutilek eta 12 neskek. Guztiek ere 19 urte bete behar zituzten. Elkarrekin afalduz hasi zuten Santa Ageda ospakizuna otsailaren 2an. Hurrengo egunetan kinto eskean ibili ziren, etxez etxe eta enpresaz enpresa. Kintoak olaztiarren eskuzabaltasunarekin pozik zeuden. Kintoek gauetan plaza girotzeko musika talde hoberenak ekarri zituzten: Egan, Joselu Anaiak eta Iratxo. Egunez herriko trikitilarien eta La Cigarra txarangaren doinuak izan zituzten lagun.

IHOTEAK



IRAÑETA Atxun Zarkoak urtean behingo bisita egin zuen.



IRAÑETA Ezpel adaxka atean.



IRAÑETA Koloredun zintak.



IRAÑETA Atxun Zarkoak sutan bukatu zuten. Inguruan dantzatu zuten.



ITURMENDI Txapel Azpi elkarteak ihote bazkaria hartu zuen. 65 irintar elkartu ziren. UTZITAKOA

ETXARRI ARANATZ

OTSAILAK 13 Osteguna

GIZAKUNDE

19:00 Kintoak txatarrez jantzita aterako dira: gorputzean zaku bat daramate eta aurpegia zapi txuri batekin estalita, batzuek ere kolorezko oihal zintak dituen kapela eramaten dute. Txatarra begi gorri, urtean behin etorri oihukatuko diete, eta zigorrak eskutan jendea berotzen ariko dira.



ARTXIBOA

SANTA AGEDA KORUAK



IRURTZUN Makilak eskutan, herrian barna ibili zen segizioa. UTZITAKOA



IRAÑETA Kopla kantari kalez kale ibili ziren irintarrak. UTZITAKOA



LIZARRAGABENGOA Elkarrekin kopla kantari ibili ziren. UTZITAKOA



ALTSASU Musikariak erritmoa eramaten lagundu zuten. UTZITAKOA



ETXARRI ARANATZ Kantu kalejira jendetsua egin zuten. UTZITAKOA

BURUNDAKO KINTOAK

Kinto egunak bertan dira Bakaikun

Gaur eta bihar hamasei gaztek ospatuko dute

BAKAIKU

Bakaikuko kintoak aurten zazpi dira: Ioritz Erdozia Lopez, Oihan Goikoetxea de Ziordia Asensio, Haritz Ramos Apaolaza, Erkuden Saez de Adana Larrañaga, Leire Zelaia Leiza, Aimar Gastaminza Garmendia eta Aitana Luis Erdozia. Guztiak 2007an jaiotakoak dira. Baina haiekin kinto gazteek eta kinto zaharrek, urte bat lehenago eta ondoren jaiotakoek, parte hartzen dute ospakizunean. Guztira hamasei gazte izanen dira kinto ospakizunen protagonista.



Kintoak eskean. ARTXIBOA

Guztiak gaur elkartuko dira Koxko tabernan majo afaltzeko. Horren ondoren herrian bertan parranda egingen dute kintoek. Hala ere, biharko fresko egon beharko dute, goizean goizetik kinto eskea egingen baitute etxez etxe. Baserritarrez jantzita ibiliko dira eskean, trikitilariak lagun dituztela. Dirua bildu ondoren tabernan elkartuko dira, 13:30ean, eta trikitilariak bakaikuarren bermut garaia alaituko dute. Poteoan ibili ondoren, Bakarrekotea elkartean bazkaltzera joanen dira, trikitilari bikotea ondoan dutela. Izan ere, bakaikuarrak sagardotegira joan

beharrean, sagardotegia herrira ekarriko dute bihar. Hori dela eta, hainbat kintadak bat egin dute ospakizunarekin. Guztira 88 bakaikuar eseriko dira mahaia- ren bueltan. Ederki bazkaldu ondoren, herrian poteoan ibili ondoren, 20:00etan Altsasura joanen dira eta han segituko dute parrandarekin.

Kinto ospakizunak despedituta, aurtengo kintoen eginkizunak ez dira hor despedituko. Haien egitekoa baita garileko festen hasieran zortzikoa plazan dantzatzea.



Kinto urdindarrak gaur hasiko dira ospakizunekin. UTZITAKOIA

Hamasei urdindar kintotarako prest

Gaur hasi eta domeka bitarte kinto ospakizunek herria itxuraldatuko dute

URDIAIN

Urdiainen aurten hamasei kinto daude: Alain Zufiaurre de la Vega, Siets Goikoetxea Garde, Igor Agirre Bergara, Maddi Gastaminza Betelu, Ane Diaz Sevilla, Maite Murua Ugalde, June Etxeberria Anton, Gurutz Goikoetxea Irisarri, Izaro Lopez de Goikoe-

txea Zufiaurre, Beñat Berdote Davies, Kaiet Arzamendi Arakama, Olatz Oroz Romero, Javier Larrea Esnaola, Eneko Chamorro San Martin, Josu Saenz de Arzamendi Irigoien eta Luken Zelaia Ganuza. Hala ere, kinto segizioa ez dute bakarrik 2007koek osatuko. Izan ere, kinto gazteek eta

kinto zaharrek osatzen dute, guztira 35en bat. Baina azken horietatik, beti kintoetatik, denek ez dute ospatuko.

Ospakizunak irauten dituen hiru egunetan baserritarrez jantzita ibiliko dira. Bai ostiralean, bai larunbatean trikitilarien doinuek alaituko dituzte haien ibilerak. Elizazpi frontoi azpiko lokala, antroa, gazteen esanetan, haien ospakizunaren erdigune bihurtuko da. Esaterako, atzo, afaldu ondoren, han egin zuten parranda. Gabonen ondoren hasi ziren zortzikoa ikasteko entseguak egiten. Javier Zelaiaren esanetara aritu dira astearte eta ostiralero ordu batez.

Kintoek urte hasierarekin batera bete zuten beraien betebeharrak. Plazako iturrian ura pitxer- rran hartu, apaiz etxera eraman eta han zeudenekin batera *Ur goiena* kanta abestu zuten. Eta, ondoren, ura banatu egin zuten. Zozketa bidez aukeratu zuten aurten egiteko hori Josuk eta Olatzek egitea.

URDIAIN

OTSAILAK 7 Ostirala

15:00 Bazkaria.
17:30 Ospakizuneko gastuei aurre egiteko axuri baten zozketarako txartelak (euro bat) salduko dituzte herrian barna. Ondoren, poteoa.
22:00 Afaria.
24:00 Parranda, antroan.

OTSAILAK 8 Larunbata

12:00 Zortzikoa, duela 25 eta 50 urte kinto izandakoek dantzatuko dute. Herriko kintaden eguna. Poteoa.
15:00 Bazkaria.
17:30 Baserrietara, eskatu eta, esker onez, dantza egingen dute. Bueltan, antroa.
18:30-21:30 Dantzaldia, Aitziber elkartean.
22:00 Afaria.
24:00 Parranda, antroan.

OTSAILAK 9 Domeka

11:00 Gosaria, hartara txistulariak gonbidatuko dituzte.
12:00 Zortzikoa plazan. Ondoren, auzatea eskaini eta axuriaren zozketa egingen dute.
15:00 Bazkaria.
17:30 Etxez etxeko kinto eskea.
22:00 Afaria, eta parranda antroan.

Hemezortziko kinto segizioa Iturmendin

Kinto ospakizunak ostiraletik domekara izanen dira

ITURMENDI

Iturmendin aurten bi kinto daude: Anna Tugas Muela eta Ekiñe Agirre Lopez. Baina haiekin batera kinto ospakizuneko protagonistak beste hamasei iturmendiar izanen dira. Kinto gazte eta zaharrak batera batuko zaizkie eta kinto ospakizuneko hemezortziko segizioa osatuko dute. Gaur, 21:30ean guztiak afaltzera elkartuko dira Aritzaga elkartean. Musika lagun, bertan parranda egingen dute.

Kinto iturmendiarrak hamaitaketa hartzera elkartuko dira

Aritzaga elkartean bihar goizean. Guztiak baserritarrez jantzita joanen dira. 11:30ak aldera kalera atera eta trikitilarien doinuek lagun kalejira egingen dute. Herri guztitik pasako dira kinto eskean. Haiekin eskuzabala denari pastak eta moskatela eskainiko dizkiete. Herriari buelta eman ondoren, Aritzaga elkartean bazkalduko dute. Han izanen dira 19:30ak aldera arte. Orduan Altsasurako bidea hartuko dute, hango kintoak dantzari ikusi, ondoren



Joan den urteko kintoak eskean. ARTXIBOA

afaldu eta kinto ospakizuna han despeditzeko.

Guztiak ere urte berriarekin batera kinto eskean aritu ziren *Ur goiena* kanta abesten zuten bitartean. Kintoek badute beste zeregin bat udaberriean: plazan

zuituko den maiatza prestatzea. Hura moztu, txuritu eta basotik plazara igotzearen ardura dute. Hilabete plazan egon ondoren, maiatzaren zuraren salmentatik ateratzen den dirua kintoendako izanen da.

Oraindik ere bada Santa Agedan zer ospatu Altsasun

Kintada guztiek bat egingen dute bihar

ALTSASU

Olaia Macia Mendia, Ainhoa Calvo Fuentes, Kepa Amillano Santano eta Gorka Diaz Diego buruzagi dituen 2006an jaiotako kintada ospakizun betean da asteazkenetik. 57 gazteak Santa Ageda egunez neskak baserritar jantzita atera ziren kalera. Eta mutilak txuriz, karkua soinean, txapela buruan eta zintadun makila eskutan zutela. Gosaltzera elkartu eta argitu aurretik, azpiltxoak eskutan, kinto eskean zeuden. Azoka eguna izanik jende gehiago izan zen herrian. Opilak jaso, esker onez jota eta porrusalda dantzatu eta opilak saltzen ere aritu ziren. Eske kontuak utzi eta 17:00ak aldera joan ziren bazkaltzera. Kinto laguntzaile edo zahato eramaile Maitane Moreno eta Euken Apaolaza izan ziren.

Gaur hirugarrenez Foru plazan izanen dira zortzikoa dantzatzen. Astelehenean izan zuten azken entsegua. Aitziber Etxaiz Soria, Edurne Somocurcio Gonzalez eta Nerea Mazkieran Lopez de Muniain irakasleen azken aholkuak jaso zituzten eta, ikasitakoa hasi dira kioskoaren inguruan erakusten.

Asteazkenean festarekin bat egin zuten duela 25 eta 50 urte kinto izandakoak, baita 60 urte

bete zutenak. Azken horietatik Rafael Artetak, Malu Ziordiak, Ana Mazkieranek eta Carlos Oterminek dantzatu zuten zortzikoa. Duela 25 urte kinto izandako emakumezkoak ere zortzikoa entseatzen aritu izan dira ilbeltzean eta asteazkenean haietako hiruk dantzatu zuten zortzikoa: Nekane Lakuntza, Maite Ieregi eta Edurne Gabirondo. Joan zen urtean ere 25 urte bete zuten emakumezkoek zortzikoa dantzatu zuten eta haiei segida hartu diete. Bestalde, kintada berak Gure Etxea eraikinaren beheko solairuan erakusketa prestatu du. 2000 urtean kinto izan zireneko argazkiak, prentsako mozketak eta beste ikusgai daude egunero, kintoak dantzatzen duten garaian.



Kaixo
Kafetegia - Jantokia

Gozatu Santa Ageda!

García Ximénez 20-22
948 469 124 Altsasu
www.restaurantekaixo.com

PORTUKO
Ostirala

Altsasu:
948 563 822 (denda)
948 467 153 (lantegia)
Etxarri Aranatz:
948 460 988

Ongi pasa santagedak!

ZURE PUBLIA

HEMEN

PUBLI@GUAIXE.EUS
948 564 275 (2)
661 52 32 41

TX
TXARTEL
Herriko Kultur Erakundearen aldea

Ongi pasa Santa Ageda!

www.txartel.net

BURUNDAKO KINTOAK

Festaren ekuatorea kinto olaztiarrendako

Domeka bitartean zer ospatu bada oraindik. Larunbatean herriko kintada guztiak ospatuko dira

OLATZAGUTIA

Kinto olaztiarrek denen artean antolatzen dute bost eguneko ospakizuna. Lotu beharreko azken kontuak Maisuenea gaztetxean egindako afarian lotu zituzten asteartean. Eta hurrengo egunaz geroztik hamazazpikote gazte bat da herriko kinto ospakizunaren protagonista, honakoak hain zuzen ere: Eder Arrizabalaga Otxoerarte, Leire Agirre Aldaz, Iosune Sanchez Amiama, Iraitz Larrañaga Vicente, Amaiur Marquez Imaz, Maider Quintana Beraiz, Eneko Rubio Galbete, Irati Zarrabeitia Barandalla, Edorta Flores Marin, Oihan Aldaz Iparragirre, Javier Esteras Oraa, Iñigo Esteras Oraa, Irati Andueza Imaz, Aratz Huegun Flores, Maren Huegun Flores, Ekaitz Perez Martin eta Oier Calvo Arregi.

Guztiak ere baserritarrez jantzita dabilta kinto ospakizunetan. Gainera, 2006ko kintoak dioen zapia eta txapela jantziak daramate. Beraien festaren ardatz dira eguneroko hamaiketakoak, bazkariak eta afariak. Bazkaldu beti Clinkerren egiten dute, gosariak eta afariak, berriz, herriko beste tabernetan txandakatuz egiten ari dira. Soinu banda herriko txarangak jartzen du 10:00etatik 19:00ak arte.

Kinto ospakizunen aurreneko egunean goiz mugitu ziren gazteak.

Eta autobusa hartu edo lanera joan behar zutenei dirua eskatu zieten. Ondoren, bitan banatu ziren eta lantegietara joan ziren batzuk eta herriko establezimenduetatik pasa ziren besteak. Hamaiketako hartu ondoren, herrian barnako kinto eskea egiten dute eguerdian eta arratsaldean. Larunbatean, herriko gainontzeko kintada guztiak batuko dira kinto ospakizunera. Ohiturari jarraituz, aurtengo kintoek herriko zaharrenari, gazteenari eta alkateari opil bana oparituko diete.

Dantza

Kinto ospakizunetan estreinakoz zortzikoa dantzatu zuten joan zen urteko kintoek. Herri inauterietan dantzatzetik kinto egunean dantzatzera pasa ziren. Haiek zabalduak bideari segida emanen diote 2006ko kintoek aurtengatik. Horretarako, entseatzen hasi ziren gabonetan. Astearen behin bildu dira frontoian, gaztetxean edo Sutegiko gimnasioan, "libre zegoen tokira joan gara". Joan den urteko kintoak izan dituzte irakasle, bereziki, Olatz Bados Ganuza. Kintoek zortzikoa dantzatu dute gaur, otsailak 7, 19:00etan, San Migel plazan. Guztira zazpi bikotek dantzatu dute zortzikoa. Txarangaren doinura ariko dira eta akaberako jota eta porrusaldara olaztiarrak batzea nahiko lukete.



Joan den urteko Ziordiko zortzikoa. ARTXIBOA

Kinto egunez, kintoak

Larunbateko ospakizunetan adinka banatuta eta, aldi berean, nahasita ibiliko dira ziordiarrek

ZIORDIA

Kontrakoa bazirudien arren, azkenean, Ziordiak kinto ospakizunak izanen ditu. Kopuru txikia izanik ere, gazte ziordiarrek erabaki dute baietz, kintoen festa ospatuko dutela. Aizeti Baztarreka kintoa eta Urtzi Gartzia kinto gaztea izanen dira protagonistak. Haiekin batera duela bizpahiru urte kinto izandako boskote bat ibiliko da festan.

Zazpi horiek izanen dira festaren arima. 11:30etik aurrera etxez etxe kinto eskean ariko dira. Eskuzabal jokatzeko diete. Nondik dabilta jakiteko musikari erreparatzea nahikoa izanen da. Herriari buelta eman ondore, 13:30ean, zortzikoa dantzatu dute plazan. Gainera, Ziordiko hainbat kintadetako

kideak elkartuko dira festara bihar. Adinkako topaketa horrek ohikoak ez diren kuadrillak ere sortuko ditu. Festa giroan herriarren arteko harremanak estutu eta kanpoan bizi direnen berri izateko aukera da. Hainbat bazkari eta afari daude prest biharko. Zazpikoteak bere paranda Altsasun segituko du gauetan.



Mitxelena, Goikoetxea eta Erdozia eta Oiarbide lehengusuak. Guztiak Sakanako Aizkora eskolatik pasa dira.

Urrezko sakandarrak

AIZKORA Etxarri Aranatzeko jokaturako Urrezko Aizkolaritza jaialdian, 19 urtez azpiko Banakako Gazteen Txapelketan Oier Mitxelena eta Joan Goikoetxea lehiatu ziren, eta 23 urtez azpiko Banakakoan Jon Erdozia eta Aritz Oiarbide lehengusuak

Maidar Betelu Ganboa ETXARRI ARANATZ Etxarri Aranatzko Euskalerriri pilotalekua herri kirolzaleen topaleku izan zen, Urrezko Aizkolaritza Txapelketako jardunaldia bertan jokatu baitzen.

XXV. Urrezko Binakako Aizkolaritza Txapelketa-Eusko Label Sariko jardunaldian ez zen sorpresarik egon. Julen Alberdi "Txikia IV.a" eta Jon Rekondo erraz gailendu ziren Ugaitz Mugertza II.aren eta Ibai Soroaren aurrean. Bost lan egin behar izan zituzten eta bostetan nagusitu ziren Txikia eta Rekondo. Guztira 17:12 minutu behar izan zituzten, eta Mugertza II.ak eta Soroak, aldiz, 19:03 minutu.

Harri jasotzaileak

Banakako Harri jasotze Txapelketan Udane Ostolaza Emakumezkoen Txapelketan aritu zen eta Gorka Etxeberría, aldiz,

Harri Handien Txapelketan. Ostolazak 63 kiloko zilindroari hamabost jasoaldi egin zizkion, 63 kiloko kubikoari hamar eta 50 kiloko bolari hamabost, guztira 40 jasoaldi eginenez (2.325 kilo). Etxeberría 175 kiloko laukizuzena hirutan jaso zuen, 138 kiloko kubikoa seitan eta 125 kiloko bola zazpitan, guztira hamasei jasoaldi (2.228 kilo).

Sakandarrak, ederki

19 urtez azpiko Banakako Aizkolaritza Gazteen Txapelketan Oier Mitxelena altsasuarra eta Joan Goikoetxea etxarriarra lehiatu ziren elkarren kontra. Hasiera batean Amets Aristizabal urdiaindarrak ariko zela iragarri zuen antolakuntzak, baina, azkenean, Oier Mitxelenak hartu zuen bere tokia. 45 ontzako bi enbor erdibitu behar zituzten, eta Mitxelena izan zen azkarre-

na (3:01). Jaialdia berandutu zela eta telebistarako denborarik ez zegoela argudiatuta, bigarren sailkatu ziren aizkolaritza gazteei ez zieten lana bukatzen utzi, katedran oso kritikatu izan zen erabakia, aizkolaritza errespetu falta zela entzuten baitzen. Goikoetxearen aizkora-kada gutxi geratzen zitzaizkion bukatzeko, eta epaileek 3:01-eko denbora jarri zioten.

23 urtez azpiko Banakako Txapelketan 45 ontzako eta 60 ontzako erdibitu behar ziren. Jon Erdoziak (4:14) ez zuen Kimetz Oñederra "Aittola"-ren aurrean (4:50) gailentzeko arazorik izan, nahiz eta etxarriarrak aitortu Donostian bizi dela eta ezin duela behar bezala entrenatu. Bukatzeko, Aritz Oiarbide haren lehengusu etxarriarra bizkor aritu zen (4:19) eta Isidro Velascoaren kontra gailendu zen (4:48).



Joan Goikoetxea eta Oier Mitxelena elkarren kontra aritu ziren.



Jon Erdozia, ahalegin betean.



Aritz Oiarbide oso fin ibili zen.

EMAKUME PREFERENTEA

15. JARDUNALDIKO EMAITZA

Altsasu - Universidad 3-0

SAILKAPENA

EMAKUMEEN PREFERENTEA . 1. FASEA

1	Altsasu	38
2	Gazte Berriak	30

HURRENGOA

OTSAILAK 16, IGANDEA

15:30 Altsasu - Valle de Egües (Dantzaleku)

Altsasu liderrak partida atzeratu du

Altsasuk galdu gabe jarraitzen du. Santa Ageda dela eta, asteburuan ez du jokatu.

GIZON ERREGIONALA

18. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Altsasu - Arga Ibaia 3-0

Etxarri Aranatz - Lagun Artea 1-0

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 4. MULTZOA

1	Altsasu	52
3	Etxarri Aranatz	42
7	Lagun Artea	29

HURRENGO JARDUNALDIA

OTSAILAK 8, LARUNBATA

12:00 Kirol Sport - Altsasu (Orkoien)

12:00 Lagun Artea - Alde Zaharreko Kluba (Zelai Berr)

16:30 Beti Onak B - Etxarri (Atrabaria)

Altsasuk ez du mugarik

Altsasu liderrak hamazazpigarren garaipena lortu zuen eta ikusgarri segitzen du. Larunbatean sailkapenean laugarren den Kirol Sporten kontra lehiatuko da.

Derbia, Etxarriendako

Etxarri Aranatzek 1-0 irabazi zuen Lagun Artearekin izandako derbi estua. Beti Onaren kontra bide beretik segi nahi du.

Lagun Artea, buelta ematera

Etxarriren kontra gutxiatik galdu zuten lakuntzarrek. Alde Zaharreko Klubaren kontra garaipenaren bidera itzuli nahi dute.

ARETO FUTBOLA Aralar Mendiren garaipena kopan

Hirugarren mailako kopan Aralar Mendik Beteluri irabazi zion eta bihar Universidad hartuko du, 18:00etan. Lehen autonomikoa Arbizuk eta Altsasuk gorenean segitzen dute (Arbizuk Eskirozi irabazi, eta Altsasuk Ribera de Navarrari). Arbizuk Mendialdea du aurkari gaur Berriozarren, eta Altsasuk atzo Mutilvera hartu zuen. Emakumeen lehen seniorrean Xotak Azkarrenaren kontra galdu zuen, eta igandean Lacturale Orvina hartuko du, 12:30ean.

Binakakoan, oraindik saltsa badago

PILOTA Ezkurdia-Rezustak geratzen diren bi partidetatik bat irabazi beharko dute zuzenean finalerdietara sailkatzeko. Elordi-Zabaletak play-offak jokatu beharko dituzte, eta Etxeberria-Martijak itxura onarekin esan nahi diote agur txapelketari

Maider Betelu Ganboa SAKANA

Binakako hamabigarren jardunaldian kolpe latza jaso zuten gure pilotariak; ahazteko moduko jardunaldia izan zen. Peio Etxeberriak eta Martijak 22-18 galdu zuten Jakaren eta Imazen kontra, eta play-offetan sartzeko aukerarik gabe geratu dira, jota. Nolanahi ere, ligaxka despeditzeko geratzen diren bi jardunaldietan euren itxura onena eman dute, eta enpresari lagundu. Gaur, ostirala, Artola eta Mariezkurrenaren ordez jokatu duen Eskiroz izango dituzte aurkari Tafallan.

Zabaletak Idiazabalen ez zuen egun ona izan. Elordirekin batera, 11-22 galdu zuten Lasoren eta Iztuetaren kontra. "Ez dakit zer gertatu den. Pilota inolako kontrolik gabe ateratzen zitzaidan eskuetatik. Ez da modurik egon" azaldu zuen kantxan deseroso eta burumakur aritu zen etxarrendarrak. Lehen bi postuetan sartu eta zuzenean finalerdietara



Etxeberria-Martija, burumakur. INAKI PORTO

ra sailkatzeko aukerarik gabe geratu dira, eta play-offak jokatu beharko dituzte. Ahalik eta hobekien iritsi nahi dute hitzordura. Gaur, ostirala, Peña II.a-Albisuren kontra jokatu dute Amorebieta-Etxanon.

Ezkurdiak eta Rezustak estropezu egin zuten Oñatin, eta utekabeen 13-22 galdu zuten Peñaren eta Albisuren kontra. Bigarrenak dira sailkapenean, eta ligaxka despeditzeko geratzen diren bi partidetak bat irabazi beharko dute, gutxienez, lehen bi postuetan mantendu eta zuzenean finalerdietara sailkatzeko. Hamahirugarren jardunaldian, azkenaurrekoa, Laso ordezkatuko duen Urrutikoetxearen eta Iztuetaren kontra jokatu dute igandean, Astelenan.

Azpiroren debuta, Irurtzunen

Irurtzongo Udalak eta Garfek Plis Plas Kopa Profesionaleko multzoen faseko pilota jaialdia ekarri dute Irurtzunera gaur, ostirala, 19:00etan. Lehen partidari Elizalde eta Uribe lehiatuko dira, eta bigarren partidari Azpirozek Garfe enpresan debutatuko du, Retegi Bi biko duela. Iribarren eta Bergera izango dituzte aurkari.

Essor Basquen denboraldia txukun hasi dute sakandarrek

TXIRRINDULARITZA Tadeo eta Gomez ihesaldietan sartu ziren, eta Uncillak lehen etapan parte hartu zuen

M.B.G. SAKANA

Afizionatuen tropela martxan da. Asteburuan 50. Essor Basque lasterketa abiatu zen Iparraldean, urtero amateur egutegia mustutzen duen proba. Essor Basquek bost etapa ditu guztira, eta asteburuan bi jokatu ziren: larunbatean Bokale eta Tarnosen artekoa, eta igandean Kanbon hasiera eta amaiera izan zuen etapa.

Iker Gomez altsasuarrak (Finisher) afizionatuetan debut polita egin zuen, bi lasterketetan aritu zelako, ihesaldietan sartuz. Tarnosen 85. postuan iritsi zen,



Aimar Tadeo, ihesaldian. UTZITAKOIA

Gari Lagnet (AC Bisontine) irabazlearen denbora berean (2:25:05), tropel nagusia batera iritsi zelako. Aldiz, Mikel Uncilla etxarriarrak (Rural Kutxa-Alea) ezin izan zuen proba bukatu.

Kanboko bigarren etapa Titouan Margueritatek (Team Atria) irabazi zuen (2:23:58). Aimar Tadeo lakuntzarrek (Euskadi Fundazioa) talde berriaren maillot gorria mustu zuen eta lehiakor eta erasokor aritu zen, ihesaldian sartuz. 61. postuan iritsi zen helmugara (2:24:14), eta Iker Gomez 124. postuan, denbora berean. Sailkapen orokorrean Gari Lagnet doa buruan, Titouan Margueritaren aurretik.

Asteburuan Essor Basqueko gainontzeko hiru etapak jokatu dira: ostiralean Donapaleukoa, larunbatean Donibane Garazikoa, eta igandean Maulekoa.



Lagun Artea talde inklusiboa. LAGUN ARTEA

Lagun Artea inklusiboa, debutatzeko prest

FUTBOLA Taldeak 'Nire gaitasuna kirola ere bada' liga bihar hasiko du, Lakuntzako Sakana

M.B.G. LAKUNTZA

Lagun Artea Kirol Elkarteak futbol talde inklusiboa sortu du aurtun. Taldea hamar futbolari ingururekin hasi da martxan, baina animatu nahi dutenek ateak zabalik dituzte. Lagun Arteako futbol koordinatzaile Aitor Goikoetxea, eta atezainen entrenatzaile Unai Otermin dira entrenatzaileak, eta juntako Miren Iriarte da taldearen arduraduna. Zelai Berri futbol zelaiaren ondoan dagoen Sakana frontoian entrenatzen du taldeak. "Taldekideen artean sortzen den harremana ikusgarria da. Oso ongi pasatzen dugu" aipatzen du beti Aitor Goikoetxeak.

Hain zuzen ere asteburu honetan abiatuko da Nafarroako Futbol Federazioak antolatutako "Nire gaitasuna kirola ere bada" futbol liga. Lagun Artea taldeak etxean hasiko du denboraldia, bihar, larunbata, 12:00etan, Aspace A Navarra taldearen kontra, Sakana frontoian. Bigarren multzo honetako beste taldeak Aspace Navarra B, Ardoi, Bidezarra eta Iruntxiki dira.

Partida hasi baino lehen, 11:30ak aldera, Lakuntza futbol talde inklusiboaren aurkezpen ekitaldia izango da. "Gogotsu daude, liga hasteko irrikaz" azaldu du Ainhoa Soto idazkariak.

Maidar Betelu Ganboa ETXARRI ARANATZ

Aspaldiko ezaguna da Irati Igoa Sesma etxarriarra: palista, pilotaria, futbolaria, entrenatzailea... Aurten aurrerapauso nabarmena eman du, Osasuna futbol taldeak fitxatu baitu. Osasunarekin 1. RFEF mailako play-offetan sailkatzea du helburu, lehen mailara igotzeko ametsagatik borrokatzeko.

Kolorea ez duzu aldatu, Altsasun eta Mulierren jantzen zenuen kolore gorriarekin jarraitzen baituzu Osasunan.

(Kar-kar) Bai, beti gorritz jantzita. Altsasuko jantzia gorria zen, Mulierrena baita ere eta Osasunarena, zer esanik ez.

Altsasun hasi zinen futbolean, baina gero Mulierrekin egin zenuen salto eta zazpi denboraldi egin zenituen bertan. Beti oso eskertuta azaldu zara Mulierrekin, benetak eskola izan da zuretako.

Hala da. Osasunara joateko aukera sortu zenean pena handia sentitu nuen Mulier utzi behar izateagatik. Zazpi urte asko dira. 3. RFEF mailan jokatzeko du Mulierrek, baina denboraldi batean maila galdu genuen, gero igotzea lortu genuen... Askok ikasi dut, Mulierrek asko eman dit.

OSASUNA ETA PRADEJON

Osasunatik jo zuten zuregana?

Bai, baina aurretik, 2023/2024 denboraldiko Gabonetako merkaturan 2. RFEF mailako Pradejon taldetik deitu ninduten. Maila bat gorago zegoen taldean aritzeko aukera polita zen, baina nahiago izan nuen denboraldia Mulierrekin bukatu eta udako merkatura arte itxarotea, aukeraren bat sortuz gero hura aztertu eta baloratzeko. Joan zen urteko ekainean Pradejonetik deitu ninduten berriz, eta Osasunatik baita ere. Nahiago izan nuen Osasunarena hautatzea: hemengo taldea da, eta 2. RFEF mailako taldeaz gain, gorago beste talde bat du, 1. RFEF mailako Osasuna talde nagusia.

Osasunazalea zara, gorritxo?

Egia esan, ni beti Errealekoa izan naiz, eta hala segitzen dut, baina Osasuna bertakoa denez, beti nahi izan dut Osasunak irabaztea. Igandean taldekideekin lehen mailako Osasuna-Erreala partida ikusten egon ginen Sarden, eta taldekide batzuek Errealek irabaztea nahi genuen. Nolanahi ere, Osasunaren aldeko sentimendua ere badut. Geroz eta kariño gehiago diot.

"Osasuna lehen mailara igotzen lagundu nahi dut"

IRATI IGOA SESMA OSASUNAKO FUTBOLARIA

FUTBOLA Bost hilabeteko epean Mulierrekin 3. RFEF mailan jokatzetik Osasunarekin

1. RFEF mailan debutatzera pasa da futbolari etxarriarra. Pozik eta ilusionatuta dago



Irati Igoa Sesma ilbeltzaren 12an debutatu zuen Osasuna lehen taldean. OSASUNA

Taxoaren sartzerakoan zein izan zen sumatu zenuen aldaketarik nabarmenena?

Batetik aldaketa handia da, Osasuna klub profesionalagoa delako: gimnasioak, futbol zelaiak, kirol instalazioak... baina bereziki entrenamendu saioetan, entrenamendu orduetan eta deikazioan, hor sentitu nuen aldaketa. Alde horretatik, dena profesionalagoa da. Hala ere, Mulierren alde esan behar dut Mulierrek ahal zuen guztia ematen zigula, talde txikiagoa dela, baina beti saiatzen zen profesionalizatzen, gu ahalik eta hobekien zaintzen.

Osasuna B taldean hasi zinen hasieran, Gorka Pascua entrenatzaile altsasuarraren esanetara, 2. RFEF mailan.

Osasun hasi behar nintzenez, nolabaiteko bertigoa nuen: kategoria berrian aritzeko gai izango ote nintzen, ongi moldatuko nintzen, egokitzea kostako zitzaidan... kezka hori banuen. Aurrendenboraldian, entrenamenduko orduak sartu eta gero, ongi egokitu nintzen kategoriara, baina egia da maila bat gorago partidek erritmo altuagoa dute.

"HIRU PARTIDA JOKATU DITUT LEHEN TALDEAREKIN, ETA HIRURAK TITULAR ETA OSORIK JOKATU DITUT"

la, intentsitate handiagoa. Aldaketa handia egon da joan zen urtetik hona, baina ongi moldatu naiz.

Postu berebean jokatzeko duzu Osasunan? Erdilari?

Osasuna B taldean Gorkarekin erdilari gisa hasi nintzen. Partidaren batean aurrelari jarri ninduen, baina gehienbat erdilari. Berdin zait non jokatu, beti moldatuko naiz eskatzen didatenera, nik jokatu nahi dudalako. Hala ere, nahiago dut erdian jokatu, eroso nago; balaio gehiago ikusten dut, korrika gehiago egiten dut... baina berdin zait.

Oso moldakorra zara. Erdilaria, baina edozein momentutan puntan jar zaitezke, aurrelari.

Bai, edozein postutan ongi nabil. Partida batzuetan erdian hasten naiz jokatzeko, baina entrenatzaileak aldaketak egin ditzake, eta niri gora pasa. Gero, bestelako aldaketaren bat badago erdilari postura jaisten naiz berriz... egokitzen naiz.

OSASUNA LEHEN TALDERA Ilbeltzaren 12an Osasuna talde nagusiarekin debutatu zenuen. Nola igo zinen talde nagusira?

Osasuna B taldearekin hasi nintzenez, 23 urtez azpiko fitxa egin zidaten. Fitxa hori izanda, banekien lehenengo taldearekin ezingo nuela jokatu. Lasai nengoen, bigarren taldean gauzak ongi egiteko asmoz. Josu Dominguez lehen taldeko entrenatzailea gure etxeko partidak ikustera etortzen zen beti. Azaroaren hasieran Osasunako kirol zuzendari Mai Gardek idatzi zidan esateko Josuk nahi zuela ni asteazkeneko lehenengo taldearekin entrenatzera joatea. Ilusio handia egin zidan, lehen taldearekin entrenatzea hitz-poto loak zirelako. Abendu hasieran egunero talde nagusiarekin entrenatzera joateko eskatu zidaten, ostiraletan izan ezik, 2. RFEF mailako Osasuna B taldeko partida prestatzeko. Eta astero hasi nintzen beraiekin.

Noiz sinatu zenuen Osasuna lehen taldearekin kontratua?

Gabonak baino lehen berarekin biltzea eskatu zidan Mai Gardek. Ez nuen gehiegi ilusionatu nahi, baina esan zidan niri fitxa aldaketa egitea aztertzen ari zirela, talde nagusira igotzeko. Ganboren ondoren sinatu genuen fitxa eta kontratu berria.

HURRENGO ORRIAN JARRAITUKO DU »



Iratu Igoa, igandean Barcelona B-ri sartutako bere lehen gola ospatzen. OSASUNA

« AURREKO ORRIAN HASI DA

Zer sentitu zenuen ilbeltzaren 12an Osasuna talde nagusiarekin debutatu zenuenean?

Poz eta ilusio handia. Bost hila-betetan Mulierrekin 3. RFEF mailan egotetik 1 RFEF mailara salto egitea lortu nuen, bi kategoria igotzea. Gainera, lehen partidaren titular jokatu nuen Huelva Sportingen kontra, eta partida osoa jokatu nuen. Horrek erakutsi zidan Josuk eta gainerako teknikariek nigan konfiantza izan zutela. Sakanatik jende asko joan zen partidara, eta horrenbeste ezagunen aurrean jokatzeko, eta irabaztea, polita izan zen. Egun borobila.

Ongi egokitu zara talde nagusira?

Bai, konpromiso gehiago eskatzen du. Ez gara profesionalak, semiprofesionalak gara, baina futbola gure lehentasuna bilakatu da: entrenamendu ordu gehiago, gimnasioa, hitzaldia, bideoa... Entrenamenduak intentsuagoak dira, serioagoak, nutrizionista dugu, talde dinamikak... dena profesionalagoa da.

Nola da zure aste bat?

Ikasketak online egiten ditut, goizez. Astearteetan izan ezik, astero arratsaldean entrenamenduak ditugu Taxoaren, 17:30etik 20:00ak arte. Eta, astebururo, partidak.

Osasunak presio handia du lehen mailara igotzeko. Azkeneko sei denboralditan iguera fasea jokatu du, baina ez du lortu.

Helburua berdina izaten jarraitzen du: lehen mailara igotzea. Azken sei urte hauetatik, urte hau urterik okerrena izaten ari da emaitzei begira. Helburua play-off postuetan sartzea da, lehen bost postuetan. Egun, zortzigarrenak gara, play-off postuetatik 5 puntura, eta beheko postuetatik 2 puntura. Lehenen-

go itzulia nahiko kaskarra izan da; beraz, bigarren itzuli honetan egoerari buelta eman nahi diogu. **Igandean lehen gola sartu zenuen, noren eta Barcelona B taldearen kontra. Gola sartzeko presioa zenuen?**

Bai eta ez. Gol bat sartzen duzunean beti pozten zara, eta beti duzu gol bat sartzeko gogoia, baina ez nuen gola sartzeko presioa izan nahi. Nire helburua astean zehar ongi entrenatzea da, eta asteburuetan jokatzeko. Eta lortzen ari naiz. Talde nagusiarekin hiru partida jokatu ditut, hirurak titular, eta gola sartzeko plus bat izan da, gainera Barcelona B-ren kontra. 2-1 aurreratu ginen, baina Barcelonak buelta eman zion partidari, 2-3 irabaziz.

1. RFEF mailako sailkapena oso estu dago, eta taldeak oso potenteak dira: Alhama, Alaves, Dux Logroño, Barcelona B, Real Madrid B, Atlético de Madrid B, Villarreal... Beti esaten da bigarren maila dela zailena.

Eta hala da. Talde indartsuenen harrobiko taldeak daude, filialak. Play-offei begira dugun abantaila da talde filialek ez dutela play-offa jokatzeko, lehen mailan euren talde nagusiak daudelako. Gure aurretik sailkapenean Barcelona eta Real Madrid daude, eta, beraz, ez dute play-offetarako kontatzen. Guretzako hobe. **Play-offetarako lehen bost postuetan sailkatu beharra dago.**

Bai. Lehen sailkatua zuzenean igotzen da lehen mailara. Beste laurek play-offak jokatuko di-

"PALA UZTEAK PENA HANDIA EMAN DIT. PALISTEKIN HARREMAN ESTUA IZATEN JARRAITZEN DUT"

tuzte, bigarrena bosgarrenaren kontra, eta hirugarrena laugarrenaren kontra, joan-etorriko bi partidatan. Gero bi irabazleen arteko finala jokatzeko da, eta irabazlea igoko da lehen mailara. Gu orain zortzirenak gara. Asteburuan Dux Logroño dugu aurkari, eta partidaz partida joan beharra dugu.

PALA, MOMENTUZ, ALBORATUTA Palista ona zara, Nafarroako eta Euskal Herriko txapelketa handia, eta Nafarroako selekzioko palista. Osasunan hastean pala utzi behar izan duzu?

Beti galdetu izan didate: "zer duzu gustukoago, pala ala futbola?" Inoiz ez dut jakin erantzuten, orain arte bi kirolak partekatzen nituelako. Osasunaren aukera onartzeak konpromiso eta exigentzia maila handiagoa ekartzen zuen, eta ezin nuen pala futbolarekin uztertu. Gainera, Osasunatik ez didate palan jokatzeko uzten, lesionatzeko arriskuagatik. Pala uzteak pena handia eman dit, inbidia sentitzen dut, baina aukeratu behar izan dut eta ez naiz damutzen. Palistekin harreman handia izaten jarraitzen dut; ahal dudanean euren partidak ikustera joaten naiz eta beraiek nire partidetara datoz. Beti izango dut palara itzultzeko aukera. **Noiz arte sinatu duzu Osasunarekin?** 2028ko ekainera arte. Orain nire helburua da hiru urte horietan Osasunarekin lehenengo mailara igotzen saiatzea. Ea posiblea den.

Familiak, lagunak... zer diote?

Familiakoak denak Osasunakoak dira, nire aita eta ni izan ezik, Errealekoak baikara biak, eta horregatik gehiago poztu ziren. Lagunak baita ere, ilusio handia egin zien. Lagun batzuek esaten zidaten Mulierren eroso nengoe-la, eta euren ustez maila handiago batean jokatzeko aukera izan behar nuela. Aukera hori iritsi zait, eta erronka ongi erantzuten ari naiz.

Giro ona duzue Osasunako lehen taldean.

Bai, sekulakoa. Bloke bat gara. Jokalari askok urte asko daramatate taldean, etorri diren fitxaketa berriak oso ongi egokitu dira taldekideekin eta ni ongi hartu naute; piña bat gara. Afaltzeko geratzen gara, Sadarreko partidak ikustera joateko... Ez da bakarrik futbola; planak egiten ditugu, eta lagunak gara.

Motorreko beste izar bat jaio da

MOTOZIKLISMOA Beraza Team taldeko Irene Beraza Larreta 2024ko Nafarroako cross country eta enducross txapelketa da 125 cc-ko kategorian. 2025. urtean hobetzea eta Espainiako Enduro Txapelketako probaren batean parte hartzea nahiko luke



Irene Beraza Larreta, zirkuituan maldan gora. UTZITAKOIA

Maidar Betelu Ganboa IRAÑETA

“Halako egurra, halako ezpala” dio esaerak. Irene Beraza Larreta da horren adibide garbia. Irintarrak 12 urte ditu, infantilen mailako Nafarroako cross countryko txapelduna da 125 c.c. mailan, eta enducrosseko txapelduna 125 cc-an. Bere zaletasunaren atzean aita eta osabak daude. Markos Beraza Vitoria Ireneren osaba Espainiako Senior B4T mailako Enduro txapelduna da. “Aita ere motorrean ibiltzen zen. Orain ere, baina ez du txapelketetan parte hartzen; nirekin etortzen da entrenatzera” dio Irenek.

Irene 5 urterekin hasi zen motorrean. “Ez zen oso moto ona; urteekin motor hobetoak izan ditut. Uste dut 2021 urtean hasi nintzela txapelketetan parte hartzen. Motorrean aritzeak ez dio inoiz beldurrik eman. “Niri asko gustatzen zait motorrean ibiltzea; txikitatik ikusi ditut eta ez didate beldurrik ematen”.

Modalitate guztiak

Cross country, motocross, enducross, enduro... modalitate guztietan aritzen da Irene Beraza. Motocrossa aldapez, saltoz eta oztupo prestaturako zirkuituan egiten den lasterketa da; moto guztiak batera ateratzen dira, eta egin beharreko bueltak lehen bukatzen duen pilotua da txapelduna. Enducrossa, enduroaren eta motocrossaren arteko nahasketa da. “Pista edo zirkuitu bat prestatzen da, bihurtzeko, harriak eta denetariko oztupoak dituena. Enducrossa erlojupeko bat da: hiru manga dira, 15 minutukoak, eta buelta azkarrak egin behar dituzu; buelta bat azkarren ematen duen pilotuak irabazten du” azaltzen du Berazak. Cross countryra iraupen proba da. “Mendian edo basoan zehaztu den zirkuitu luze batean jokatzeko da. Hasieran buelta bat ematen da zirkuitua ikusteko, eta gero pilotu guztiak batera ateratzen gara, errenkadan, eta ordu batean edo zehazten den orduan zirkuituari ahalik eta buelta gehien ematen dizkionak irabazten du”.

Nolanahi ere, berak enduro modalitatea du gustukoena. Motocross eta cross country modalitateen arteko nahasketa da, proba oso luzea, kilometro askoko zirkuitua prestatzen baita basoan. Zirkuitu horretako hiru tokitan kronometratutako guneak



Irene Beraza Larreta, mendiko Beta motorrekin eta Beraza Team taldeko maillotarekin. UTZITAKOIA

daude, eta bertan azkarrago ibili beharra dago. Une osoan adi egon behar da, kontzentrazio handiko proba da. “Gustukoan dudana modalitatea da”.

Nafarroako txapelduna

Ilbeltzaren 18an Nafarroako Motoziklismo Federazioak Los Arcoseko zirkuituan antolatutako 2024ko sari emate ekitaldian Irene Berazak infantilen mailako 125 cc-ko Nafarroako cross countryko txapeldunaren eta 125 cc-ko Nafarroako Enducrosseko txapeldunaren sariak jaso zituen. “Denboraldi ona egin dut, oso pozik nago. Txapelketetan hasi nintzenez, lehenengo urtean ongi hasi nintzen, eta hortik aurrera, goraka egin dut, beti ikasten eta hobetzen” azaldu du Irene Berazak. Markos Beraza osabak Nafarroako Motocross txapeldunaren saria jaso zuen Los Arcosen. Bien artean makina bat trofeo dituzte etxean, “pila bat”.

Beraza Team

Irene Beraza bere osaba Markos sortutako Beraza Team taldekoa da, beste haur eta gaztetxoekin batera. “Bi iloba ditut, oso motorzaleak, eta beraiendako haurren talde bat sortu genuen. Gustura ibiltzen naiz haurrak trebatzen” azaldu izan digu Markos Berazak behin baino gehiagotan. Tartean dago Irene. “Guztira hamar pilotu inguru gara, horietatik bost sakandar”. Bera da taldeko neska bakarra. “Ongi moldatzen naiz mutilekin. Lasterketa gehienetan mutilekin lehiatzen naiz, neska gutxi garelako. Horrek exijentzia handiagoa du guretako, baina gustura aritzen naiz. Normalean mutilak azkarrago joaten dira,



12 urteko pilotu irintarra, malda izugarrian gora. UTZITAKOIA



Irene Berazak Donostiako Gravity Freestyle ikuskizunean parte hartu zuen. UTZITAKOIA



Beraza, Nafarroako Txapelketetan jasotako dominetako batekin. UTZITAKOIA

baina ni mutil batzuk baino azkarragoa naiz”.

Nafarroako egutegiko probetan lehiatzen da bereziki Irene Beraza, baina kanpora ere atera izan da. “Esaterako, aurten Espainiako Txapelketako proba batean lehiatu nintzen. Hor neskekin jokatu nuen bakarrik, neska gehiago geundelako, hamar inguru. Ongi ibili nintzen, bosgarren, baina beti hobetu daiteke. Aurten, Nafarroako Txapelketako probekin batera, 2025eko Espainiako Enduro Txapelketako probaren batean lehiatzen saiatuko naiz” argi du irintarrak.

Gravity Freestyle

Ilbeltzaren 4an Donostiako Iluben antolatutako Gravity Freestyle Motocross ikuskizun erraldoian parte hartu zuten Irene Berazak eta hainbat emakumezko pilotok, gonbidatuta. Motocross eta salto erakustaldia egin zuten. “Egun handia izan zen, esperientzia polita, oso eskertuta gaude antolakuntzarekin, emakumezko pilotuei ikusgarritasuna eman zigutelako”.

Irene Irañetako zirkuituan – urtero lasterketa antolatzen dute– eta Altsasuko MX Urbasa zirkuituan trebatzen da, “nahikotxo, bereziki asteburuetan. Baina astean zehar ere Irañetan aritzen naiz”. 125 cc-ko Beta motorra du, endurokoa. “KTMak izan ditut, baina orain mendian gehiago ari naizenez, mendiko Betarekin gustura ari naiz”.

Argi du motorrean munduan jarraituko duela. “Mundu hau gustuko dut, asko, eta jarraitu nahi dut”. Lagunak ohituta daude. “Paga txutxeetan gastatu beharrean, gasolinan gastatzen dut (kar-kar)”. 12 urterekin podiumaren gorenera igo da, eta urte pila bat ditu aurretik. Irene Berazaren ibilbideak Olaztik Eukene Urrarena dakarkigu gogora. Eukene ere bere osabarekin, Fernando Urria pilotuarekin, trebatzen zen motocross, enduro eta cross countryan. Horregatik, Eukeneren estelaren atzetik, motorreko beste izar bat jaio da Sakanan.

"MUNDU HAU GUSTUKO DUT, ASKO, ETA MOTORREAN JARRAITU NAHI DUT"
IRENE BERAZA

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO 13:00AK BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 7

HIRIBERRI ARAKIL Film dokumentala eta solasaldia.

Exopia Greziako errefuxiatu eremuen inguruko film dokumentalaren emanaldia eta Grezian errefuxiatuekin izandako boluntarioekin solasaldia. **18:30etan, kontzeju etxean.**

EUSKARAZ

ETXARRI ARANATZ Bakarrizketa.

Irrizikloa: Ana Goitiaren *Katana* bakarrizketa saioa. Sarrerak: 6 euro. **19:00etan, kultur etxean.**

OLATZAGUTIA Irakurle kluba.

Olatzagutiko irakurle kluba: *Vestido de novia*, Pierre Lemaitre idazlearena. **19:00etan, liburutegian.**

OLATZAGUTIA Kontzertuak.

Kontzertuak: Armando Barullo eta Los Tirris (flamenkoa). **23:00etan, Maisuenea gaztetxean.**

LARUNBATA 8

OLATZAGUTIA Kontzertua.

Bidean erromeria. **23:00etan, Maisuenea gaztetxean.**

Kantu bazkaria Irurtzunen

Otsailaren 23an, igandea, 14:30etik aurrera, Kantu bazkaria antolatu dute Irurtzongo Pikuxar elkarteak. Sei Pistols eta Trabuko Bat taldea izanen da bazkaria musikaz girotzeko arduraduna. Txartelak otsailaren 12ra arte eros daitezke, Pikuxar tabernan, 25 eurotan edaria, kafea eta kopa barne, eta 14 urtetik beherakoak 15 eurotan.

LIZARRAGA Festa.

Trikitixa festa eta bazkaria. Lizarragako kontzejuak antolatuta. **Eguedian, elkartean.**

IGANDEA 9

OLATZAGUTIA Mendi irteera.

Sakanako Mendizaleen mendi irteera: Lekunberri – Oderitz. Ondoren, sagardotegia. Tutture elkarteak antolatuta. **08:00etan, bus geltokitik.**

OLATZAGUTIA Antzerkia.

El carnaval animal Luz, Micro y Punto konpainiaren antzezlanaren emanaldia: Kukua armiarmaz mozorrotu da, beltxarga unti dotorez, dortokari hegoak ateratzen zaizkio oskoletik, astoa adarbakar bihurtuko da eta dinosauoia tukanez jantziko da; inauteri eguna da. Sarrerak: aurretik, 3 euro; egunean bertan, 3,5 euro. **17:00etan, kultur etxean.**

ALTSASU Gazte agenda.

Torradak eginen dituzte. **18:00etatik aurrera, Intxostiapuntan.**

IRURTZUN Film dokumentala.

Arg(h)itzen Sakanako torturaren inguruko auzolanean egindako film dokumentalaren emanaldia. Azpituak gaztelaniaz eta euskaraz. Sarrerak: 3 euro. **19:00etan, kultur etxean.**

ASTELEHENA 10

ALTSASU Elkarretaratzea.

Sakanako Pentsiodunen Mugimenduaren kontzentrazioa. **12:00etan, Zumalakarregi plazan.**

ASTEARTEA 11

EUSKARAZ

ETXARRI ARANATZ Hitzaldia.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

La acompañante
Igandea 9 19:30
Astlehena 10 19:00

Flow
Igandea 9 17:00

Mikaela
Osteguna 13 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO TXIKIAN

Itoiz Sumer Sesioak
Igandea 9 17:00
Igandea 9 19:30

EI 47
Osteguna 13 19:00

Erreflexu primitiboak. Oinarriak eraikitzen Feli Oregiren hitzaldia: Garapenerako faseak ezagutzeko eta laguntzeko beste bide bat. Andra Mari Ikastolak antolatuta, Ikastolak Herriari biyerko Sakana eraikitzen egitasmoaren barruan, Etxarri Aranazko Udalaren laguntzarekin. **17:00etan, kultur etxean.**

ASTEAZKENA 12

EUSKARAZ

ALTSASU Film dokumentala.

Zuloan zu? film dokumentalaren emanaldia: Aloña Mendi espeleologia



OSTIRALA 14

ALTSASU Aurkezpena.

Euskaraldia Elkar mugituz egingo dugu aurkezpen irekia. **18:30etan, Gure Etxean. tabernan.**



ARTXIBOA

IRURTZUN Begoña Rastrillaren margolanen erakusketa. Otsailaren 28ra. Pikuxar tabernan.

ARTXIBOA

ALTSASU Artekleta: Bizikletei bide Altsasu BHIk sortutako erakusketa. Otsailaren 23ra. Iortia kultur gunean.

Er^viti aluminio PVC

Akaborro industrialea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioeserviti.es

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

Kalitatea, harrera ona eta prezio ezin hobea

taldeak Arantzazuko santutegitik gertu dagoen haitzulo baten esplorazioa kontatzen du. Ustekabeko agerpen batek espeleologoak harrituko ditu, agerraldi honekin aurrera jarraitzeko indarra berreskuratzen dute. Xanti Ugartek zuzendutakoa eta Aloña mendi espeleologia taldeak aurkeztutakoa. Altsasuko Mendigoizaleak taldeak, Aloña taldeak eta lortia kultur guneak antolatuta. Sarrera: doan.
18:30ean, lortia kultur gunean.

OSTIRALA 14

EUSKARAZ
ALTSASU Hitzaldia.
Sexualitatea eta harreman osasuntsuak Itxaso Torregrosa sexologoaren hitzaldia,

Sexgunea zerbitzuaren barruan: Sexualitatea ez da soilik harreman sexualak, sexualitatea bizipenak edo pertsonatik pasatzen den guztia dira, lagunak eta beste pertsonakiko harremanak barne. Horretaz ohartzeak, bikotea lehenesten duen eredu batekin (eredu espezifiko batekin, gainera) apurtzea dakar, eta gainontzeko pertsonekin nola erlazionatzen garen zalantzan jartzen hastea. 12 urtetik gorakoendako.
18:00etatik 19:30era, lortia kultur gunean.

EUSKARAZ
IRURTZUN Filmaren emanaldia.
Ai hau pena nik Jose Luis Erdozioaren Etxarriko euskararen inguruko filmaren emanaldia. Sarrerak: 5 euro.
19:00etan, kultur etxean.

JARRI ZURE
IRAGARKI LABURRA!

948 56 42 75
iragarki@guaixe.eu
www.guaixe.eu/iragarkiak



ESKELA



75eko kintakook ez ditugu ahazten joan
zaizkigun kintoak

Altsasu

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOKA
LAN ESKAINTZA
Sakanako Garapen Agentzian komunikazio arduradun lanpostua betetzeko deialdia: Zuzendaritzari laguntza, komunikazio kudeaketa, edukiak sortzea eta on-tzea sareen kudeaketa, web orrien kudeaketa egin behar delarik. Lanaldi erdia izango da eta B mailako kontratua. Hautapen probetan ize-na emateko epea otsailaren 9an amaitzen da. Informazio gehiago www.sakanagaratzen.com web orrian.

denda.wixsite.com/ikastola, diru ekarpenak egiteko kontu zenbaki honetan: FR76 1005 7195 2500 0202 0160 520 edota materiala eman nahi duenak haiekin harremanetan jarri daiteke arberoakoikastola@gmail.com.

Iturmendiko osasun etxeak telefono zenbaki berria du: Bakalkuko, Iturmendiko eta Urdiango udalek jakitera eman dutenez. Osasun arreta eskatzeko 948 633 038 zenbakira deitu behar da hemendik aurrera.

kazioaren bitartez BIZUM EMAN/DONAR atalean Mundubat Fundazioa bilatu eta 08737 kodea erabilieta dirua eman.

Emakumeen bigunearen zabalpen zerrenda martxan: Altsasuko Udaleko Emakumeen Bilguneak Whatsapp aplikazioko zabalpen zerrenda bat sortuko du, Berdintasun Zerbitzuetik antolatzen ditugun ekitaldi eta jardueren berri emateko. Zabalpen zerrendan parte hartu nahi baduzu, bidali iezaguzu Whatsapp-eko mezu bat zure izen-abizenekin eta zerrendan parte hartu nahi duzula adieraziz telefono honetara: 628 328 593.

Errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntzak: Establezimendu komertzialei, ostalari-tzakoei eta elkar-teei zuzendutako dirulaguntzak dira. Diruz lagunduko dira errotuluak, toloak eta ibilgailu komertzialen errotulazioa. Euskara hutsean idatzita dagoen errotulua jartzen duenari %50 ordainduko zaio, gehienez 500 euro emanen zaizkio. Euskaraz eta erdaraz idatzita daudenei %25a, gehienez 250 euro. Eskabideak aurkezteko epea 2023ko urriaren 31n amaitzen da. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian.

SOS GAZA. Gernika-Palestina herri ekimenak Yala Nafarroa plataformarekin batera Elkartasun Aktiboa inizatiba martxan jarri du: Netanyahu nazioarteko epaileen aurrean eramateko, Gazan elkartasuna proiektuak bultzatzeko Mundubat GKE-ren bitartez eta Palestina leku guztietan ikusarazteko. Ekarpene ekonomikoa egiteko, Nafarroan ES36 3035 0083 2808 3014 0037 kontu korrantean dirua sar dezakezu, edo zure banketxearen apli-

iragarki@guaixe.eu
www.iragarkilaburra.eu

ESKELA



Jose
Alonso Aparicio

Pertsona on eta langilea.
Ezagutu zaitugunon bihotzetan
biziko zara beti.

Belaize Eraikuntzak-eko langileak



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskela@guaixe.eu

- ▶ Eskelen tarifak: 55,90 € / 106,5 € / 143,70€ prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek %10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Asteazkena goizeko 12:00ak baino lehen.

JAIOTZAK

• **Nahikari Gorriti Astiz**, urtarrilaren 24an Uharteko Arakilen.

HERIOTZAK

• **Maria Jesus Gastaminza Eraso**, otsailaren 2an Olaztin.
• **Miguel Mari Lanz Alegria**, otsailaren 3an Lakuntzan.
• **Jose Berastegi Urkia**, urtarrilaren 30ean Arbizun.
• **Jose Alonso Aparicio**, urtarrilaren 30ean Altsasun.

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70
📧 @Grupolrache
📱 Grupolrache
🌐 www.tanatoriosirache.es



'Mamuki' 2024ko edizioko irabazlearen aurkezpena. ARTXIBOA

Etxepare sariko 2025eko edizioa martxan

Nafarroako hamasei toki entitatek, haien euskara zerbitzuen bidez, tartean Sakanako Mankomunitateak, antolatzen dute haurrendako album ilustratuak sortzeko sariketa. Maiatzaren 9ra arte aurkez daitezke lanak

SAKANA

Etxepare sariak haurrendako album ilustratuak sortzea du helburu. Album ilustratuak dira testua eta irudia elkarren osagarri dituzten lanak. Nafarroako hamasei toki entitatetako euskara zerbitzuek antolatzen dute sariketa, Sakanako Mankomunitateak barne, eta saria 5.000 eurokoa da eta Pamiela argitaletxeak lana argitaratuko du. Maiatzaren 9ra arte bidal daitezke lanak.

Etxepare saria lehiaketan sortzaileak bakarka edo idazle eta ilustratzaileek osatutako taldean parte har dezakete; nahi beste lan aurkez ditzakete, euskaraz idatziak, jatorrizkoak eta argitaratu gabekoak. Ez dituzte onartuko moldatutako lanik edo aurretik saririk jaso duenik. Sari hau azken lau deialdietako batean jaso duten idazleen edo ilustratzaileen lanak alde batera utziko dira.

Album ilustratuen formatua librea da, baina ez dira 20 zentimetroko zabalera eta 21 zentimetroko altuera baino txikiagoak

izan beharko, eta gutxienez hamabost orrialde bikoitz izanen dituzte. Testuak ez dituzte 4.000 karaktere baino gehiago edukiko (zuriuneak barne). Antolatzaileek jakinarazi dutenez, ez dira album mutuak onartuko, hitzik gabekoak, ezta adimen artifizialarekin egindako lanak ere.

Maiatzaren 9ra arte aurkez daitezke lanak, *etxeparesaria.eus* webgunearen bitartez, horretarako prestatutako formularioaren bidez. Fitxategiak 20 mega baino gehiago ez izatea aholkatzen dute. Lanak izengoitiaz aurkeztu behar dira. Egileek nahi badute irudi originalak bidaltzeko aukera dute posta arrunt bidez; lanarekin batera gutun-azal itxi bat aurkeztuko beharko dute, kanpoko aldean

MAIATZAREN 9RA ARTE AURKEZ DAITEZKE LANAK ALBUM ILUSTRATUAK SORTZEKO

lanaren titulua eta egilearen goitizenarekin, eta barruan datuak agertuko dira. Larraungo Udaltxeko Euskara Zerbitzura bidali behar dira (Gabari Plaza, 31878, Mugiro).

Epaimahaiak erabakia hartzeko azken eguna ekainaren 27a izanen da. Behin irabazleen izenak jakinarazi ondoren, Pamiela argitaletxeak Etxepare sariko lan irabazlea argitaratuko du, eta aurretik irabazleek 5.000 euroko saria jasoko dute. 2024an *Mamukik* Maite Rosende eta Nerea Ariznabarreta egileen album ilustratua irabazi zuen lehiaketa.

Nafarroako hamasei toki entitatek antolatzen dute: Agoizko, Antsoaingo, Atarrabiako, Barañaingo, Baztango, Burlatako, Esteribarko, Galar Zendeako, Garesko, Iruñeko, Lizarrako, Noain-Elortzibarko eta Zizur Nagusiko udalak, eta Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatea, Sakanako Mankomunitatea eta Zaraitzu eta Erronkariko Batzorde Nagusiak.



BAZTERRETIK

OIHANE AGIRRE ULAIAR

Txinxilikan bizien alde



UTZITAKOA

'Ai hau pena nik' filmaren bira

Sakanako zenbait herritan aurkeztu ondoren, Iruñiera heldu zen Jose Luis Erdoziak bultzatutako eta Etxarriko euskara sustatzeko sortutako *Ai, hau pena nik* filma: ilbeltzaren 21ean Kondestable jauregian eman zuten eta bertan izan ziren zuzendaria eta antzezleak. Otsailaren 14an, ostirala, 19:00etan, Irurtzongo kultur etxean emanen dute.



Ana Goitia umoregilea. BARREMAN

"Inoiz amestuko nuena baino hobea izaten ari da 'Katana'"

ANA GOITIA BAKARRIZKETALARIA

Lekeitiarrak Etxarri Aranazko Irrizikloan parte hartuko du gaur, bere 'Katana' bakarrizketarekin. "Terapia" modukoa dela esan dio jendeak

Erkuden Ruiz Barroso ETXARRI A.

Ana Goitia *Katana*-rekin izanen da gaur, otsailak 7, 19:00etan, Etxarri Aranazko kultur etxean, herriko kultur zerbitzuak antolatatu duen Irrizikloaren barruan. Publikoak "oso-oso ondo" pasako duela esan du umoregileak: "Aste gogorraren ondoren barre egiteko terapia da *Katana*". Ondoren poteatzen barre egiten jarraituko dutela esan du.

Nondik dator 'Katana'?

Katana dator nire mingaina katana bat bezalakoa delako. Moz-

ten du eta zorrozuta dago. Bakarrizketa barre egiteko da, baina esaten ditut gauza batzuk denok identifikatuta sentitzen garela. Batzuetan konturatu gabe hausnartzera eramaten gaitu. Betiere umoretik ondo pasatzetik.

"ANEKDOTAK TRANSMITITZEN DITUT; NIRE BIZITZA OSO ANEKDOTIKOA DA"

Zure lehenengo bakarrizketa da?

Bai; lehenengo bakarrizketa luzea nolabait esateko. Urte eta erdi edo bi urte ibili naiz leku desberdinetatik bakarrizketalari talde batekin bakarrizketa motzak egiten. Etxarri Aranazten egon ginen, gaztetxean, duela urte bat inguru eta, egia esan, oso gustura aritu ginen. Pentsatu nuen luze bat egiteko momentua zela. Adin bat badaukat, eta zergatik ez probatu? Horrela izan zen; pentsatu eta egin.

Eta nola da bakarrizketa bat sorzkeko prozesua?

Azkenean, lehendik probatuta nituen testuak hartu ditut; oso ondo funtzionatzen dutenak hartu eta ildo horretatik zer kontaktu nahi dudana. Zer mezu esan nahi dudana. Testu asko nituen eta egia esan ez zen oso erraza izan kanpoan zer utzi erabakitzea. Beharbada testu bat ez nuela sartuko esan, eta nirekin bakarrizketak egiten aritzen direnek esaten zidaten: "Baina nola ez duzu sartuko! Sartu behar duzu!". Bada, sartu beharko dut.

Zer transmititu nahi duzu?

Anekdotak transmititzen ditut. Nire bizitza oso anekdotikoa da, gauza asko pasatzen zaizkit nahiko barregarriak direnak. Barregarriak edo nola hartzen ditudan nik gauza horiek ere bada. Bada ere euskal gizarteari buruzko hausnarketa txiki bat. Musika asko ikutzen dut izugarri gustatzen zaidalako; ama naiz eta orduan guraso izatearen hortik ere gauzak komentatzen ditut; matxismoaren gaia lantzen dut ere... Hainbat gai jorratzen ditut, nik bizi dudana; nire egunerokotasuna. Horretan oinarritzen naiz, eta jendea asko identifikatzen da.

Beraz, zure bizitzan inspiratzen zara?

Nire inguruan. Orain gainera obsesio bat da. Zerbait kontatu eta: "Horrek monologo bat dauka!". Edozerekin egin daiteke bakarrizketa bat.

Zer behar da bakarrizketalari izateko?

Nirea nahi gabe izan da. Nire bizitzan gertatu diren gauza guztiak bezala. Edozertara animatu izan naiz. Egingo duzu hau? Aurrera. Egia esan betidanik gustatu izan zait bakarrizketen mundua eta egunen batean bakarrizketa bat egin behar nuela pentsatzen nuen. Baina, besterik gabe. Barre Librean hasi nintzen, gero Antton Telleriarekin eta beste bakarrizketalari batzuekin... Eta bizia ematen zidala ikusi nuen. Horrela hasi nintzen, anekdotikoa izan zen ere. Ez da zerbait prestatu dudana. Baina egia da garrantzitsua dela sena edukitzea; azkenean daukazu edo ez daukazu. Txikitatik

"JENDEAK GERO ETA GEHIAGO ESKATZEN DU UMOREA EUSKARAZ, ETA ZEIN POLITA DEN"

kuadrillarekin eta abar beti izan naiz gauzak modu berezian kontatzen dituen edo pixka bat xelebreagoa dena. Puntu hori eduki behar da. Azkenean, gehienok autodidaktak gara. Ondo pasatzen dudala ikusi nuen, publikoan ez zuten gaizki hartzen eta probatu nuen. Eta, egia esan, oso ongi. Ikusiko dugu Etxarri Aranazten, baina azken aldian ikusi nuenaren arabera, ederra da.

Zer moduz hartu du publikoak 'Katana'?

Izugarri ondo. Espektatibarik gabe sortu nuen; espektatiba gutxi batzuekin. Baina esaten nuen: "Nor bait etorriko da ikustera? Inor ez badator etorriko zarete zuek behin eta berriz?". Lagunei esaten nien, eta haiek etorriko zirela... Baina uste baino askoz hobeto joan da. Oso zorionsu nago. *Katana* ez nuen sortu bakarrik esateko nik egin behar dut hau beti nahi izan dudalako, niretzako oso garrantzitsua da kultura euskaraz egitea eta horrelako ikuskizunak egitea. Gainera, emakume bezala. Zorixarrez ez dago hainbeste emakume oholtzaren gainean bakarrik aritzen direnak, eta niretzako gauza horiek oso garrantzitsuak dira. Ikusten ari naiz jendeak nahi duela; oso ongi hartzen du, gogoan du eta asko disfrutatzen du emanaldian. Niretzako inoiz amestuko nuena baino hobea da. Izugarri betetzen dit eta oso gustura nabil. Ikusi dut euskaldunok nahi dugula. Jendeak gero eta gehiago eskatzen du umorea, eta zein polita eta zer garrantzitsua den.

Behar delako ere, ezta?

Hori da. Nik uste duela bi urtetik hona berpizkunde bat egon dela euskal umoregileen artean. Zorionez geroz eta gehiago daude, oso onak, eta gazte pila bat. Hori izugarri gustatzen zait. Etorrizuna badaukagu. Emakumeak ere gero eta gehiago dira. Hor egon dira Idoia Torregarai eta Mirari Martiarena, urte pila bat daramatzate, lagunak ditut eta erreferenteak; baina gehiago daude: Maria Blanco, Maialen Sorzabalbere, Esti Curiel... Askato ateratzen ari dira, eta etorriko direnak ere. Hori behar dugu. Mutilen kasuan ere asko daude. Zorionez ere toki gehiago ditugu. Euskal umorea behar dugu, bai komunikabideetan bai plazetan, kaleetan, herrietan... Umorea eta euskalduna behar dugu, eta horretan gaude.

"Autoen artean hazi naiz, gurasoen lana jarraitzen"

Irurtzugo Akaborro II industrialdean Goñi Tailerra, txapa eta pintura konponketako tailerra, dago. 1980an sortu zuten, eta maiatzaren 1ean 45 urte beteko ditu. Tradizioa eta berrikuntza uztartzen dute; beraien konponketak kalitatea eta emaitza onen erakusle dira

Eneida Carreño Mundiñano
IRURTZUN

1 Gari, nola iritsi zarete tailer hau izatera?

Nire aita, 15 urterekin, Irurtzugo tailer batean hasi zen txapista lanetan. 1980an aldiz, 23 urte zituela nire gurasoek garajea alokatu zuten. Ogibide hori gus-tuko zuten eta tailerraren aldeko apostua egin zuten. Konpondu zuten lehen autoa 1970 urtean izan zen, Iribasko lagun batena zen. 1995ean Irurtzugo industrialdean garaje berria sortu zuten eta hara lekualdatu ziren.

2 Gurasoen negozioa izateak zer eman dizu?

Etxean hiru anaia gara eta hemen jarraitu duen bakarra ni naiz. Txikitatik gogoko izan dut gurasoen lana, auto artean hazi naiz. Familiarekin batera ogibidea ikasten joan naiz. Azken urteetan, aurreko lantegia txiki geratu zitzaigun eta buelta asko eman ondoren tailer berri bat sortzea erabaki genuen, ilusio handiz. Tailer hau 2023ko apirilaren 15ean zabaldu genuen.

3 Zeintzuk dira eskaintzen dituzten zerbitzuak?



Garikoitx Goñi Urroz, eskuinetik lehenengoa, gurasoekin Irurtzugo tailerlean.

Zerbitzu nagusienak ibilgailuen txapa konponketa eta margotzea dira. Autoak, furgonetak, traktoreak, kamioiak, motorrak, etab. Kolpeak eta marruskadurak bere osotasunean konpontzen ditugu. Estetika eta karrozeria lanak gure bereizgarritasuna dira. Modu berean bezeroaren autoaren konponketa bitartean kortsiazkoa uzten diogu.

4 Kalitatea da zuen bereizgarrietako bat da.

Teknologikoki puntako lan tresnak eta makinak dauzkagu, baita margotzeko bi kabina, zortzi igogailu, xurgatzeko zazpilarzoru ere. Langile bakoitzak xurgatzeko eta lixatzeko makina bana dute, igogailu mugikor bat, koloreen espektro makina, margoak egiteko makina, infragorri makina (lehortzeko), bankada (txasiseko kolpeak zuzentzeko makina duena), hiru soldadura mota eta eskuko tresna desberdinak. Lan tresna berriztagarrien aldeko apostua egin dugu.

5 Nolako inpaktua du zuen tailerrek Irurtzunen eta Sakanan?

Lehenik, eskualdean enplegua sustatzen dugu. Antolatzen diren hainbat kirol eta kultur jardueretan, ekitaldietan parte hartzen dugu. Herriko jaietan, eskualdeko aldizkarietan, GUAIXE kasu. Gainera, Gipuzkoako eta Nafarroako hainbat ikastetxerekin harremanetan gaude, ikasleek praktikak gurean egin ditzaten.

6 Ingurumenarekin errespetugarriak zarete?

Urezko margoak izenez ezagutzen diren margoekin egiten dugu lan, dagoen legediarekin bat datorrena. Birziklatzeko baldintza

guztiak betetzen ditugu. Material bakoitza antolatu eta dagokion tokira eramaten dugu.

7 Proiektu nabarmenik gaur egun?

Konponketa bakoitza berezia izaten da baina gurasoengandik ikasi nuen gauzetako bat da, jendearekiko gertutasuna izatea, bezeroak pozik eta alai badaude, horrek gu askopoztengaitu. Proiektuak etorriko dira, eta bezeroa %100ean pozik geratzea beti izan da gure helburuetako bat.

8 Zenbat langilek osatzen duzue lan taldea?

Gaur egun hamaika pertsona gaude lantaldean, baina guztiak gara garrantzitsuak proiektuak aurrera egin dezan. Esango nuke talde bikaina garelata bestearekin osatzen dena eta kalitatezko zerbitzua ematea da gakoa.

9 Behar izanez gero bezeroaren etxera joaten zarete autoa hartzera?

Bai, hori ere egiten dugu. Etxera joan, autoa hartu eta tailerrera ekarri. Erraztasunak eman badaitezke gu prest eta bezeroa pozik geratzen da.

10 Negozioak etorkizuna izan dezan zer dago zuen esku?

Lantalde sendoa izaten jarraitu, kalitatezko zerbitzua eskaini eta bezeroak egindako lanarekin pozik geratzea.

11 Zer esango zenieke Sakan-darrei?

Sakandarrei eta bezero guztiei eskertzea Goñi Tailerrarengan konfiantza izatea eta honen parte izatea eta behar izanez gero hemen gaudela zerbitzua eskaintzeko prest.

ZURE PROIEKTUA GARATZEKO LAGUNTZARIK BEHAR AL DUZU?

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

gk
DISEINUA ETA
KOMUNIKAZIOA

f
619 821 436
info@gkomunikazioa.eus
www.gkomunikazioa.eus
Foru plaza, 23-1. Aitsasu

